



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko urriaren 30ean

109 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- Lankidetz hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalak eta Nafarroako Foru Komunitateak eratu duten Koordinazio eta Jarraipen Batzordearen eginkizunak arautzekoa (10. or.).
- Lankidetz hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitatearen enplegu kudeaketa eta Enpleguaren Institutu Nazionalaren langabezi prestazioena koordinatzekoa (13. or.).
- Lankidetz hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean informazioa eta estatistika trukatzekoa (19. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, euskararen normalizaziorako lanen barrenean halako inkesta soziolinguistiko bat egiteko deialdiaren egokitasunari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (24. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ekonomia globalizatuan finantza egonkortasuna, garapen ekonomikoa eta berdintasuna bultzatzeko helburua duten nazioarteko lankidetzako jarduketak egin ditzan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (25. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udalen erabakiak oztopa ez ditzan, Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (26. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gorteek dei egiten diete herritarrei bakearen alde eta terrorismoaren eta gerraren kontra erantzun dezaten, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (27. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Nafarroako liburutegi publikoen eredua” izeneko proiektua bultza dezan, Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (28. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da teresatarren ikastetxea zen eraikineko obrak ez egitera Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta Nafarroako Kontseiluaren iritzia jakin arte, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (31. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Bardeako tiro poligonoaren eta hura gerrarako trebatzeko eremu gisa erabiltzearen aurka dagoela adierazten du. Erretiratutako mozioa (33. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruzkoa, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina (34. or.).
- Galdera, Euskaltzaindiarekiko akordioa izenpetu ez izanaren arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (35. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Irakaskuntza ertain eta goi mailako ikasketetarako beka eta laguntzak” kontusailaren superabitari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (35. or.).
- Galdera, MER hondakinen manipulazioak, Tratamientos MER, S.A. enpresak egindakoak, izan duen kostuari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (36. or.).
- Galdera, azken bost urteotan atxilotu dituzten paperik gabeko etorkinei buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egina (37. or.).
- Galdera, ezgaituentzako laguntzei buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egina (37. or.).
- Galdera, telelaguntza zerbitzuaren erabiltzaileei buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egina (38. or.).
- Galdera, Zaraitzun ibarreko zenbait herriren izena euskaraz adierazten zuten errotuluak kendu izanari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (38. or.).
- Galdera, Zaraitzun ibarreko zenbait herriren izena euskaraz adierazten zuten errotuluak kendu izanari buruzkoa. Erretiratutako galdera (39. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak hautatzeko arauak. Izangaiak aurkezteko epearen luzapena (40. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen Foru Lege proposame-na aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Toki esparruko herri kontsultak arau-tzen dituen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafar-roako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioaren 23.1. artikulua herriarren oinarritzko eskubidetzat jotzen du herri-tarrek, bai zuzenean bai ordezkarien bidez, gai publikoetan parte hartzea. Zuzenean parte hartze-ari dagokionez, 149.1.32 artikuluan Konstituzioak dio Estatuak eskumen osoa duela herri-kontsulten deialdiak baimentzeari buruz.

Erreferendum motei buruzko urtarrilaren 18ko 2/1980 Lege Organikoak, xedapen gehigarrian, udalen herri-kontsultak kanpoan utzi eta dio toki araubideari buruzko legediak araututakoari jarraitu beharko zaiola.

Toki araubidearen oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 71. artikulua, bestalde, alkateei herri-kontsultak egiteko aukera ematen die, alde aurretik osoko bilkurak gehiengo osoz onetsi eta nazioko gobernuak baimena eman ondoren; betiere, udalaren eskumenekoak diren gaiari buruzko kontsultak eta herritarren interesentzat garrantzi berezikoak diren tokian tokiko kontsultak izanen dira, eta salbuetsita egonen dira toki ogasunei buruzkoak.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, 96. artikuluan, Oinarriari buruzko legeko xedapenak garatu zituen –laburregi bada ere–. Arautze hori ez da nahikoa izan eta ez du balio izan herri-kontsultaren bidezko parte hartzea sustatzeko: indarrean daraman denbora guztian ez da bat bera ere izan. Komenigarria da, azken urteotan zenbait autonomia erki-degok egin duten moduan, xeheki arautzea gai hori, eta, horrela, udalek edo bertako herritarrek kontsulta egitea egoki irizten dutenerako, herri-kontsultak egiteko aukera ematea, hots, toki espa-ruko gaietan parte hartzeko tresna bat ematea herritarrei.

Arau honen helburua da kontsulta prozesuaren bide formala arautzea eta, halaber, prozesu horren inpartzialtasuna, gardentasuna eta objektibotasuna bermatuko duten organoak arautzea, betiere udal autonomiaren printzipioaren barranean; horrela, estatu demokratikoak berezkoak dituen bai herritarren parte hartzea bai pluralis-moa ahalbidetuko dira.

I. TITULUA Xedapen orokorrak

I. kapitulua Herri-kontsulten definizioa

1. artikulua. Objektua.

Foru lege honen objektua da Nafarroako Foru Komunitatean toki esparruko herri-kontsultak arautzea.

2. artikulua. Toki esparruko kontsulten bidez aztertzeak diren gaiak.

1. Toki esparruko herri-kontsulta herritarrek gai publikoetan zuzenean parte hartzeko duten tresna bat da; horren bidez, herri bateko biztanleek zer iritzi duten adierazten dute udalaren eskumenekoa izan eta haien interesentzat garrantzi berezikoak diren gaiak buruz.

2. Ezinen da inola ere tokiko herri-kontsultarik egin, baldin eta hautatzeko ematen diren aukeretakoren bat ordenamendu juridikoaren aurkakoa bada. Orobat, herri kontsultak ezinen ditu udalaren ordezkari organoak dagozkien erabaki ahalmenak gutxitu.

3. Herri-kontsultetatik kanpo geldituko dira toki ogasunen arloko gaiak.

3. artikulua. Bozketa unibertsala.

Tokiko herri-kontsultak egiteko, foru lege honek 14. artikulua aipagai duen hautesleriaren bozketa unibertsal, libre, berdin, zuzeneko eta sekretua erabiliko da.

4. artikulua. Zer epetan ez dagoen kontsultarik egiterik.

1. Kontsultarik ezinen da deitu, ezta egin ere, hauteskundeak deitu eta egiten direneko tartean; hurrengo hauteskundeak hain zuzen: Gorte Nagusietako diputatu eta senadoreak, Nafarroako Parlamentua, toki entitateko kideak edo Europako Parlamentuko diputatuak hautatzeko hauteskundeak; arau bera aplikatuko zaie estatu esparruko erreferendumei. Halaber, ezinen da kontsultarik deitu, ezta egin ere, salbuespen egoera edo setio egoera indarrean dagoen bitartean.

2. Herri-kontsulta deitzen bada aurreko idatzatzen aipatutako hauteskundeak edo erreferenduma deitu aurretik edota salbuespen edo setio egoera ezarri aurretik, kontsulta eten egiten da eta aurreko horiek amaitu eta ondorengo hilabetean jarraitu behar du prozedurak.

3. Herri-kontsulta eragiten duen gaia, emaitza edozein dela ere, ezinen da berriro ere kontsultagai izan udalbatzaren agintaldi berean.

5. artikulua. Hauteskunde barrutia.

Foru lege honi dagokionez, hauteskunde barrutia udalerrria da.

II. kapitulua Ekimena eta deialdia

6. artikulua. Ekimena.

1. Prozedura udalbatzak berak has dezake edo herritarrek hala eskatuta. Herritarrek eskatuta hasteko, kasuko udalean errolatutako herritarren ehuneko hamarren sinadura behar da gutxienez.

2. Udal hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea dutenek soilik sina dezakete herritarren eskaera.

7. artikulua. Baldintzen egiaztapena.

1. Prozedura herritarrek eskatuta hasten denean, ekimenaren bultzatzaileek, zeinak gutxienez ere bost herritar izan behar baitira edo egoitza herrian duten bi herritar-elkarte, udalari agiri bat aurkeztu behar diote alde aurretik. Agiri horretan, duten asmoaren berri emanen diote udalari, eta ordezkari bat izendatuko dute; agiriarekin batera, herritarren sinadurak biltzeko erabiliko den orri-eredu bat ere aurkeztuko da. Orri-eredu horretan argi adierazi behar da zein den kontsultatu nahi den gaia.

Sinadurak biltzeko orriak, herritarrek identifikatzeko, hurrengoak jartzeko hutsuneak izan behar ditu: izena eta abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea eta kautotutako sinadura (hauek kautotu dezakete sinadura: notarioak, idazkari judizialak, kasuko udaleko idazkariak edo horrek eskuordetutako norbaitek). Kautotzea kolektiboa izan daiteke, orriko egin, orri bakoitzean agertzen diren sinadura kopurua adierazita.

3. Udalak, herritarrek hartzeko duen bulegoan, sinadurak biltzeko orriak izanen ditu herritarren eskura; idazkariak edo beste funtzionario batek kautotuko ditu, eta lortutako sinadura guztiak bultzatzaileen ordezkariari emanen dizkio hark eskatzen dizkionean, edo, eskatu ezean, hiru hilabeteko epean, 1. idatz-zatian aipatutako agiria aurkeztu zenetik hasita.

4. Bultzatzaileek izendatutako fede-emaile bereziek ere kautotu ditzakete sinadurak. Izendatutako pertsonak adin nagusikoa izan behar du, eskubide zibil eta politiko osoak izan behar ditu, ezinen du zigor-aurrekaririk izan eta kasuko udalaren hauteskunde-eroldan izan behar du. Fede-emaileok udaleko idazkariaren aurrean zin egingo dute sinadurak benetakoak direla eta funtzionario publikoei faltsutze-delituen kasuetarako

ezarritako erantzukizun penalak aplikatuko zaizkie.

5. Bultzatzaileek behar adina sinadura lortzean, udalean aurkeztuko dute herri-kontsultaren deialdia egiteko eskaera, eta, horrekin batera, sinadura-orriak aurkeztuko dituzte orri bakoitzari zenbakia jarrita. Alkateari dagokio ekimenak prozedura-baldintzak betetzen ote dituen egiaztatze-ko neurriak hartzea. Eskariak ez baditu betetzen behar diren baldintzak, udaleko erregistroan eskari hori jaso eta bost egun balioduneko epean, ekimenaren bultzatzaileek izendatutako ordezkariari hamar egun balioduneko epean akatsak konpontzeko eskatuko zaio.

5. Aurreko idatz-zatietan ezarritako tramiteak bete direla egiaztatu ondoren, alkateak, eskaria udaleko erregistroan jaso eta hogeita hamar eguneko epean, osoko bilkuran aurkeztuko du ekimena, eztabaida dadin.

6. Udaleko osoko bilkurak hurrengoetan soilik uka dezake herri-kontsulta:

a) Kontsultatu nahi den gaia ez bada kontsulta daitezkeenetakoa edo udalaren eskumenekoa ez bada.

b) Ez badu eskatutako sinadura kopurua.

c) 4. artikuluan aipatutako eperen batean aurkeztu bada.

d) Proposamenak, 2. artikuluko 2. idatz-zatiari jarraikiz, ordenamendu juridikoa urratzen badu.

8. artikulua. Kontsulta egiteko erabakia.

Kontsulta egiteko erabakia gehiengo osoz hartu beharko du osoko bilkurak, eta kontsulta zehazki nolakoa izanen den jaso beharko du: galdera bat edo gehiago, argi eta garbi idatziak, boto-emailleek baiezkkoa edo ezezkoa eman ahal diezaien.

9. artikulua. Baimenaren tramitazioa.

1 Herri-kontsulta egitea erabakitakoan, udalak nazioko gobernuaren baimena eskatuko du, nahitaezkoa baita Toki araubidearen oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 71. artikulua arabera.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa betetzeko, alkateak, bost eguneko epean, Nafarroako Gobernuko Lehendakariari igorriko dio osoko bilkurak hartutako aldeko erabakiaren hitzez hitzeko ziurtagiria, espedientearen kopia batekin batera. Lehendakariak, baimen eskaria eginen dio nazioko gobernuari, erabakia jaso eta hamar eguneko epean.

3. Nazioko gobernuak herri-kontsulta egiteko baimenari buruzko erabakia hartu eta Nafarroako Gobernuko lehendakariak, hura jaso eta bost eguneko epean, kasuan kasuko udaleko alkateari helaraziko dio.

10. artikulua. Deialdia.

1. Baimena jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan, alkateari dagokio herri-kontsulta deitzea; hori erabaki baten bidez eginen du, non jasoko baita, 8. artikuluan ezarritakoaren bat, kontsulta zehazki nolakoa izanen den. Halaber, bozketa zein egunetan izanen den adieraziko du; igandea edo jaieguna beharko du izan eta deialdia egin ondorengo hogeita hamargarren egunetik berrogeita bosgarren egunera arte doan bitartean; informazio-kanpainaren iraupena ere ezarri beharko du.

2. Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara emanen da, hamar eguneko epean gehienez ere. Orobat, alkateak udaleko iragarki oholean jarriaraziko du deialdia, eta eskualdean hedapen handiena duten komunikabideen bidez ere ezagutzera emanen du.

II. TITULUA

Hauteskunde administrazioa eta hautesleak.

I. kapitulua

Hauteskunde administrazioa

11. artikulua. Hauteskunde administrazioaren organoak.

Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak eta hauteskunde mahaiek osatzen dute hauteskunde administrazioa, eta hauteskunde araubide orokorrari buruzko lege organikoa izanen dute arau, foru lege honetako berezitasunak kontuan hartuta betiere. Batzordeak parte-hartzen du kontsultaren objektibotasun eta gardentasuna bermatzeko, bai eta berdintasunaren printzipioa botoak ematera-koan ere.

12. artikulua. Eskualdeko Hauteskunde Batzordea.

Hauteskunde araubide orokorrari buruzko lege organikoaren 11. artikulua ezarritako osaera izanen du Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak; batzordekide ez judizialak, hala ere, Hauteskunde Batzordeak berak izendatuko ditu; udalean ordezkariak duten talde politikoek eta foru lege honetako 7. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen den ordezkariak –halakorik bada– elkarrekin proposatutako pertsona izanen da. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo zortzigarren egun balioduna baino lehen ez bada egiten propo-

samena, Hauteskunde Batzordeak libreki izendatuko du kide hori.

2. Eskualdeko Hauteskunde Batzordea, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hirugarren egun baliodunean, kide judizialekin eratu beharko da; hamabosgarren egun baliodunean, aldiz, kide guztiekin.

3. Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak foru lege honetan araututako prozedurari buruz hartutako erabakien aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke bost eguneko epean, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, auzi horien jurisdikzioari buruzko legeak ezartzen duen moduan.

13. artikulua. Giza, gauza eta ekonomia baliabideak.

1. Kontsulta deialdia egin duen udalak Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen esku jarriko ditu behar diren giza eta gauza baliabideak, batzordeak, horrela, dituen eginkizunak egin ahal ditzan.

2. Udalak bere gain hartu beharko ditu, baita ere, prozesua aurrera eramateko gastuak.

II. kapitulua **Botoa emateko eskubidea**

14. artikulua. Titularrak.

1. Kontsultan boto bidez iritzia adierazteko eskubidearen titularrak dira udaleko biztanleak izan eta, deialdia egitean, udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea dutenak.

2. Deialdiaren dekretua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta seigarren egunean, udalak iragarkien oholean Hauteskunde-Zentsuaren Bulegoaren ordezkariak probintzialak emaniko hauteskunde-zerrendak jarriko ditu.

3. Hautesleeren zerrenda iragarkien oholean jarrita egonen da bozketaren egunera arte eta hauteskunde mahaietara igorriko dira dokumentazio ofizialarekin batera.

15. artikulua. Botoa emateko eskubidearen froga.

Mahaiak duen hautesleeren zerrendan agertzea botoa emateko eskubidearen frogagarri izanen da, eta baita deialdiaren egunean hauteskunde zerrendan egoteko eskubidea duela dioen ziurtagiria, zeina Hauteskunde-Zentsuaren Bulegoaren ordezkariak probintzialak ematen baitu. Edonola ere, boto-emaleak nortasun agiria erakutsi beharko du, edo argazkidun pasaporte edo gidabaime-na.

III. kapitulua

Hauteskundeetako sekzio, lokal eta mahaiak

16. artikulua. Sekzio, lokal eta mahaiak ezartzea eta horiei buruzko erreklamazioak.

1. Udalak ezarriko du hauteskundeetako sekzioen kopurua, horien mugak, lokalak eta sekzio bakoitzari dagozkion mahaiak.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako zerrenda, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta zortzigarren egunetik aurrera, kasuko tokian hedapen handiena duten aldizkako argitalpenen bidez emanen da ezagutzera eta udalaren iragarki oholean jarriko da.

3. Aurreko idatz-zatiek hizpide duten zerrenda udalaren iragarki oholean jarri eta hurrengo sei egunetan, hautesleek erreklamazioak egin ahal izanen dituzte osoko bilkuraren aurrean; ebazpena hurrengo bost egunetan emanen du osoko bilkurak. Behin betiko zerrenda, horrelakorik gertatuz gero, udalaren iragarki oholean jarriko da errekurtsoak ebatzi eta berehalaxe.

4. Zein lokaletan jarriko den hauteskundeetako sekzio eta mahai bakoitza seinalatuko du udalak.

17. artikulua. Hauteskunde mahaien osatzea.

1. Hauteskunde araubide orokorrari buruzko lege organikoaren 26.1, 2 eta 3 artikuluek ezarritakoari jarraituz, udalak osatuko ditu hauteskunde mahaiak eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak ikuskatu eginen du mahaien osaketa.

2. Deialdia argitaratu ondorengo hamargarren egunetik hamabosgarren egunera arte doan bitartean eginen dira mahaietako lehendakari eta kideak izendatzeko zozketak; horien emaitzak bost eguneko epean jakinaraziko zaizkie interesdunei.

3. Mahaietako lehendakari eta kide karguak nahitaez hartu beharrekoak dira. Kargu horien izendapenari Hauteskunde araubide orokorrari buruzko lege organikoaren 27. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatiak aplikatuko zaizkio, 3.aren azken zatia izan ezik.

III. TITULUA **Prozesua**

I. kapitulua **Informazio kanpaina**

18. artikulua. Informazio kanpaina.

Informazio kanpainaren iraupena deialdian ezarritakoa izanen da; edonola ere, gutxienez hamar egun izan beharko ditu eta gehienez hoge;

bozketa eguneko 00:00etan amaitu beharko du kanpainak.

19. artikulua. Informaziorako tarte eta gune publikoak.

1. Udalean ordezkariak duten talde politiko guztiek dute informaziorako doako tarteak izateko eskubidea, bai eta kontsultaren bultzatzaileek ere, halakotzat jotako herritarren elkarteak barne.

2. Titulartasun publikoko komunikabideetako tarteak kasuko tokira mugatuko dira.

3. Udalak doako guneak gorde beharko ditu informazioa jartzeko, eta lokal ofizialak edo leku publikoak eskura jarri, dohainik baita ere, kanpainako ekitaldietarako; horiek Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinarazi beharko zaizkio deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hamar egunetan.

4. Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak, doako tarte eta guneak banatzeko, aukera berdintasunaren irizpideari jarraituko dio, eta, subsidiarioki, udalean ordezkariak duen talde politiko bakoitzak azken udal hauteskundeetan izaniko boto kopuruari; esleipena egitean, kontuan hartuko dira taldeek adierazitako nahiak, eta pluralismoaren errespetua bermatuko da kanpainan zehar. Kontsulta herritar talde bate bultzatua bada, lehenbizi kontuan hartuko beharrekoa horien ordezkariak adierazitako nahiak dira, eta gero talde politikoak, aurreko irizpideei jarraituz. Kontsultaren bultzatzaileek, halakorik izatekotan, udal ordezkariak duten talde politikoek batez beste dituzten tarte eta guneak izan beharko dituzte gutxienez.

20. artikulua. Kanpaina instituzionala.

Deialdia egin eta informazio kanpaina amaitu arte, udalak kanpaina instituzionala egin eta hauei buruzko informazioa emanen du: bozketa eguna, botoa emateko prozedura, alde aurretik botoa emateko baldintzak eta horretarako tramitea, eta kontsultako galdera edo galderen testua. Edonola ere, ezinen da botoaren orientazioan eragin. Kanpainaren diseinua, edukia eta aurrera eramateko forma osoko bilkurak onetsiko ditu.

II. kapitulua Dokumentu ofizialak

21. artikulua. Boto-txartelak, gutunazalak eta aktak.

1. Alkateak proposatuta, eta deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeigarren eguna baino lehenago, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak boto-txartelak eta bozketarako gutunazalak onetsi behar ditu, bai eta hauteskunde mahaietako eratze-eta zenbaketa-aktak ere.

2. Hauteskunde mahaietara bozketa hasi baino ordubete lehenago, beranduenez, nahikoa boto-txartel eta nahikoa bozketarako gutunazal heldu direla bermatuko du kasuan kasuko udalak.

22. artikulua. Boto-txartelaren ezaugarriak.

1. Boto-txartelean galdera edo galderen testu osoa agertuko da, eta galdera horren edo horien erantzuna, BAI edo EZ izan beharko baitu.

2. Boto-emaleak BAI edo EZ aukeren ondoan izanen den laukitxoan seinalea jarri adieraziko du galdera bakoitzari buruzko erabakia, edo laukitxo hori hutsik utziz. Orobat, alde aurretik erantzuna inprimituta duten boto-txartelak ere egiten ahalko dira.

III. kapitulua Botoa alde aurretik ematea

23. artikulua. Baldintzak.

1. Hautesleek, Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen aurrean, alde aurretik eman ahalko dute botoa, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeigarren egunetik aurrera.

2. Alde aurretik botoa eman ahal izateko, hautesleak berak eskatu behar dio Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari; udaleko idazkariak pertsona hori hauteskunde-zerrendan dagoela dioen ziurtagiri bat eman beharko du. Identifikazioa egin eta gero, batzordeko idazkariak botoa emateko behar duen dokumentazioa emanen dio interesdunari; botoa batzordean geldituko da, haren babesean, bozketaren egunerako arte, eta, egun horretan, dagokion mahaira igorriko da bozketa amaitzeko ordua baino lehenago.

3. Udaleko idazkariak, alde aurretik botoa emateko ziurtagiria ematen duenean, aurreko idatz-zatian aipatutako hori, hauteskunde mahaira igorritako hautesleen zerrendan idatzi beharko du, pertsona horrek ezin dezan botorik eman bozketaren egunean.

4. Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak, udalari entzun ondoren, eta behar izanez gero, egoki irizten dituen neurria ezar ditzake bozketa-mota hori arinagoa egiteko.

IV. kapitulua Bozketa eta botoen zenbaketa

24. artikulua. Mahaiak eratzea

Hauteskunde mahaiak kideak bozketaren egunean kasuko lokalean bilduko dira bozketa hasi

baino ordubete lehenago, eta, mahaiaren eratzeko akta egin eta gero, denek sinatuko dute.

25. artikulua. Bozketa eta botoen zenbaketa.

1. 09:00etan hasiko da bozketa, eta, etenik gabe 20:00ak arte iraungo du; ordu horretan, lehendakariak hautestontzian sartuko ditu alde aurretik emaniko botoak, eta, gero, mahaiko kideek emanen dute botoa.

2. 500 biztanle edo gutxiago dituen herri batean egiten bada kontsulta, alkateak kontsulta hori beranduago hastea edo garaizago amaitzea erabaki dezake; hasiera eta amaieraren artean lau orduko tartea beharko da gutxienez ere.

3. Bozketa amaitzean, botoen zenbaketa hasiko da; zenbaketa publikoa izanen da, eta mahaiko kideek horren akta sinatuko dute; aktan, xehetasunez adieraziko da botoa eman zezaketenen kopurua, botoa eman dutenena, galderek izan dituzten boto positibo eta negatiboena, boto zuriena eta baliogabeko botoena. Ondotik, mahaiak, lehendakariaren bidez, dokumentazio guztia Eskualdeko Hauteskunde Batzordera igorriko du.

4. Udalak ordezkari bat izenda dezake informazioa jaso dezan parte-hartzearen zenbatekoari buruz, eta mahai bakoitzeko emaitzei buruz. Horretarako, botoen zenbaketa egin ondoren, mahaiak zenbaketa aktaren kopia bat eman beharko dio udaleko ordezkari akredituari.

26. artikulua. Zenbaketa orokorra eta emaitzaren aldarrikapena.

1. Zenbaketa orokorra publikoa da eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak egiten du bozketa egin eta hirugarren egunean.

2. Zenbaketa orokorra egin eta egun bateko epean, hala udalean ordezkariaren talde politikoek nola, halakorik bada, kontsulta bultzatu duten taldeetako ordezkariak, zenbaketa horren gaineko erreklamazioak aurkeztu ahalko dizkie Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, zeinak egun bateko epean ebatzi beharko baititu.

3. Eginiko erreklamazioak ebatzi ondoren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak kontsulta-

ren emaitzak aldarrikatuko ditu; aldarrikapenaren aktaren kopia bat udalera igorriko du, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta iragarki oholean jar dezan.

4. Herri-kontsultaren emaitza Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hilabetean, udaleko osoko bilkurak horri buruzko eztabaida egin eta behar diren erabakiak hartuko ditu. Halakorik bada, kontsulta bultzatu dutenen ordezkariak osoko bilkuran har dezake parte emaitzen balioespina egiteko. Kontsultaren emaitza ez da loteslea izanen.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Nafarroako Gobernuak udalei beharrezkoa duten laguntza emanen die herri-kontsultak egiteko, baita laguntza teknikoa ere.

Bigarrena. Foru lege honetan ezarritako epeak luzaezinak dira, non eta legean bertan besterik ezartzen ez den; epeak egunetan adierazten direnean, egun naturalak direla ulertuko da.

Xedapen indargabetzailea

Indarrak gabe geldituko da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 96. artikuluko hirugarren idatz-zatia, bai eta foru lege honi kontra egiten dioten xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehena. Foru lege honek jasotzen ez dituenak osatzeko, udalei aplikatzen zaien hauteskundelegediko xedapenak aplikatuko dira, horiek kontsultaren ezaugarri eta esparruari egokitu behar direla kontuan hartuta.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio, behar adina xedapen eman dezan foru lege hau garatu eta betearazteko.

Hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- Etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2001eko azaroaren 12ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2001eko maiatzaren 2ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

D saila:
HITZARMENAK

Lankidetzaren hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalak eta Nafarroako Foru Komunitateak eratu duten Koordinazio eta Jarraipen Batzordearen eginkizunak arautzekoa

Nafarroako Parlamentuko 162. artikulua ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzen da: "Lankidetzaren hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalak eta Nafarroako Foru Komunitateak eratu duten Koordinazio eta Jarraipen Batzordearen eginkizunak arautzekoa".

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lankidetzaren hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalak eta Nafarroako Foru Komunitateak eratu duten Koordinazio eta Jarraipen Batzordearen eginkizunak arautzekoa

.....(e)an, 2001eko(a)ren ...(e)an.

BILDURIK

Alde batetik, María Dolores CANO RATIA andrea, Enplegu Institutu Nazionaleko zuzendari nagusia, urtarrilaren 29ko 165/1999 Errege Dekretuaren bidez (urtarrilaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofiziala) izendatua. Eskudun da Hitzarmen hau izenpetzeko, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 6. artikuluko lehen idatz-zatiari urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez ezarritako testuak xedatuaren arabera. Hain zuzen ere, horrek dio administrazio orokorrak eta harekin lotura duten edo haren menpekoak diren erakunde publikoek lankidetzaren hitzarmenak egin ahalko dituztela autonomi erkidegoetako administrazioetako organoekin, zein bere eskumenen esparruan.

Bestetik, Nuria ITURRIAGAGOITIA RIPOLL andrea, Nafarroako Gobernuako Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria, uztailaren 28ko 14/1999 Foru Dekretuaren bidez izendatua (1999ko uztailaren 29ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

Egintza honetarako ahalmena Nafarroako Gobernuakan hartutako erabakiaren bidez eskuratu du.

Esku hartzen duten alde horiek hitzarmena egiteko lege gaitasuna aitortzen diote elkarri eta, horrenbestez

ADIERAZI DUTE:

LEHENDABIZIKOA. Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeko 6. artikuluko 1. idatz-zatiak, urtarrilaren 13ko 4/1999 legeak emaniko testuaren arabera, gaitasuna ematen die Estatuko Administrazio Orokorrari edo hari loturiko edo haren mendeko erakundeei autonomia erkidegoetako administrazioen kasuan kasuko organoekin lankidetzaren hitzarmenak izenpetzeko, dauzkaten eskumenen esparruan.

BIGARRENA. Maiatzaren 14ko 811/1999 Errege Dekretuaz Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zaio Enplegu Institutu Nazionalak lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloan egiten duen kudeaketa; eskualdatze horrek 1999ko urriaren 1etik aurrera izan du indarra.

HIRUGARRENA. Aurreko arauko eranskineko 3. idatz-zatiko e) letrak koordinazio eta jarraipen batzorde bat sortzen du, osaketa paritarioa eta sei kide edukiko dituen; Estatuko Administrazioak izendaturiko hiru eta Foru Komunitateko Administrazioak izendaturiko beste hiru. Bi administrazioen arteko geroko hitzarmen baterako uzten da batzorde horren funtzioen eta funtzionamendu araubidearen araupena.

LAUGARRENA. Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeko 4. artikulua, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emaniko testuari jarraituz, ezarri zuen administrazio publikoek, beren jardueran eta elkarrekiko harremanetan, bakoitzak bere esparruan, lankidetzaren eta

laguntza aktiboa eman beharko diotela elkarri, bakoitzaren eskumenak gauzatzeko halakorik behar denean. Horrenbestez, bidezkoa da Estatu-ko Administrazioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea, bakoitzaren eskumenen esparruan, aipaturiko 30/1992 legeko 6. artikuluko 1. idatzatian ezarritakoaren indarrez.

BOSGARRENA. Bidezkoa da, beraz, batzorde horren funtzioen eta funtzionamendu araubidearen araupena biltzea; arau horiek herritarrari zerbitzu hobea eta eraginkorragoa ematea ekarriko dute, elkarrekiko lankidetzaren izpirituen baitan, hain zuzen ere oro har Estatu-ko Gobernuari dagozkion eta autonomia erkidegoei ere dagozkien helburu publikoak betetzeko eta elkarren eskumenen, funtzioen eta antolamenduen errespetua bermatzeko, indarreko antolamendu juridikoari jarraituz.

Hori guztia dela eta, bi aldeek **ERABAKI DUTE** ondoko lankidetzaren hitzarmena sinatzea. Hona

KLAUSULAK

Lehenbizikoa. Hitzarmenaren xedea

Bi administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmen honen xedea da, koordinazio eta jarraipen bat eratzeko eta haren funtzionamendu araubidea finkatzeko; hain zuzen ere, Enpleguaren Institutu Nazionalak lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloan egiten zuen kudeaketa Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea harmonizatzeko helburuarekin.

Bigarrena. Izendapena

Estatu-ko Administrazio Orokorra eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak elkar behartzen dute Koordinazio eta Jarraipen Batzordea eratzeko; horretarako, Enplegu Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Nagusiak hiru ordezkari eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dagozkion hiru ordezkariak izendatuko dituzte.

Hirugarrena. Egoitza

Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Mistoak txandakako egoitza izanen du. Madrilen, Enpleguaren Institutu Nazionalaren zerbitzu zentraletako eraikinean (Condesa de Venadito kalea, 9), eta Iruñean: hain zuzen ere, batzordearen lehendakaria zein administrazioetako den, horren arabera.

Laugarrena. Funtzionamendu araubidea.

Batzorde hori, modu arruntan, urtean behin bilduko da; aparteko izaeraz, berriz, alde batek eskatzen duenean edo lanaren, enpleguaren eta

prestakuntzaren arloko funtzio eta zerbitzuen eskualdatzearen ondoriozko alderdiren bati buruzko erabakiak hartu behar direnean. Batzordearen lehendakaritza txandakakoa izanen da; lehenbiziko urtean, Enpleguaren Institutu Nazionalak edukiko du lehendakaritza.

Bosgarrena. Funtzioak.

Hona Koordinazio eta Jarraipen Batzordearen funtzioak:

a) Bi administrazioen arteko koordinazio egoia bermatzea, maiatzaren 14ko 811/1999 Errege Dekretuaren aplikazioaren ondorioz gerta daitezkeen interpretazio eta betetze arazoei konponbidea emateko.

b) Estatu-ko Administrazioaren eta Foru Komunitatekoaren arteko lankidetzaren sustatzea.

c) Maiatzaren 14ko 811/1999 Errege Dekretuak esleitutako funtzioak eta marko horretan sinatzen diren hitzarmenen indarrez esleitzen zaizkionak garatzea.

d) Bi administrazioen artean izenpetzen diren hitzarmenen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

e) Eratutako koordinazioko azpibatzerdeetan hartutako erabakiak zuzen aplikatzen direla zain- tzea.

Seigarrena. Koordinazioko azpibatzerdeen sorrera, osaketa eta funtzioak.

1go. Batzordean bi lantalde sortu dira, ondoko izenekin:

– Lankidetzaren Hitzarmena enpleguaren eta lan- gabezi prestazioak kudeatzeko arloan Koordinatze- ko Azpibatzerdea.

– Lankidetzaren Hitzarmena Informazioa trukatzeko- ren eta estatistikaren arloan Koordinatze- ko Azpibatzerdea.

2gn. Azpibatzerdeak zortzi pertsonak osatuko dituzte: lau, bi administrazioetako bakoitza ordezkatzeko; pertsona horiek Koordinazio eta Jarraipen Batzordeko kideek edo haiek eskuordetutakoek izendatuko dituzte, azpibatzerde bakoitzean lan- duko diren gaien arabera. Administrazio bakoitzaren ordezkariak behar dituzten teknikariek joan ahal izanen dira bileretara; teknikari horiek, dena den, ez dute ez ahotsik ez botorik azpibatzerdeko saioretan.

Azpibatzerdeko lehendakaria Koordinazio eta Jarraipen Batzordeko lehendakaritzan dagoen Administrazioak izendatuko du.

3gn. Azpibatzordeak, gutxienez ere, bi hilabetez behin bilduko dira edo, bestela, sinatzen duten aldeetako batek eskatuta.

Azpibatzordeak Iruñean eginen dira, txandaka Enpleguaren Institutu Nazionalaren Lurralde Zuzendaritzaren egoitzan eta Foru Komunitateko Administrazioak adierazitako tokian.

4gn. Koordinaziorako azpibatzordeek lankidetzaz hitzarmen berariazkoaren esparru materialean gerta daitezkeen arazo eta gorabeheren jarraipen puntuala egitea izanen dute eginkizun.

Zazpigarrena. Ordezko zuzenbidea.

Aurreko arauetan berariaz aratu ez denari dagokionez, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legean (22. artikulutik 27. artikulura bitarte) ezarritakoa aplikatuko zaio.

Zortzigarrena. Indarraldia.

1go. Hitzarmen honek sinatzen denetik 2001eko abenduaren 31ra bitarte izanen du indarra. Hitzarmena besterik gabe luzatuko da urte naturalarekin batera, sinatzaile diren aldeetako batek alde aurretik amaiarazten ez badu.

2gn. Aurreko lerrokadan aipatzen den amaia-raztea dagokion indarraldia bukatu baino sei hilabete lehenago, gutxienez ere, gertatu beharko da. Betiere, indarrean mantenduko da harik eta beste hitzarmen bat sinatzen den arte; bitartean, indarra izanen dute bi administrazioek hartutako konpromiso guztiek.

3gn. Hitzarmen honetan jasotako betebeharrak edozein ez betetzeak eskubidea emanen dio beste Administrazioari hitzarmena amaiarazteko, aurreko lerrokadan ezarritakoari jarraituz.

Bederatzigarrena. Jurisdikzioa.

Hitzarmen hau administratiboa da eta haren edukia dela-eta sor daitezkeen eztabaidak administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioan ebatziko dira.

Aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, bi alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, hasieran esandako toki eta egunean.

Enpleguaren Institutu Nazionaleko zuzendari nagusia: M^a Dolores Cano Ratio

Nafarroako Gobernuoko Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

Lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitatearen enplegu kudeaketa eta Enpleguaren Institutu Nazionalaren langabezi prestazioena koordinatzeko

Nafarroako Nafarroako Parlamentuko 162. artikulua ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Bilzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzen da: "Lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitatearen enplegu kudeaketa eta Enpleguaren Institutu Nazionalaren langabezi prestazioena koordinatzeko".

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitatearen enplegu kudeaketa eta Enpleguaren Institutu Nazionalaren langabezi prestazioena koordinatzeko

.....n, ...(e)koren(e)an.

BILDURIK

Alde batetik, María Dolores Cano Ratia andrea, Enplegu Institutu Nazionaleko zuzendaria nagusia, urtarrilaren 29ko 165/1999 Errege Dekretuaren bidez (urtarrilaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofiziala) izendatua. Eskudun da hitzarmen hau izenpetzeko, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 6. artikuluko lehen idatz-zatiari urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez ezarritako testuak xedatuaren arabera. Hain zuzen ere, horrek dio administrazio orokorrak eta harekin lotura duten edo haren menpekoak diren erakunde publikoek lankidetzaren hitzarmenak egin ahalko dituztela autonomi erkidegoetako administrazioetako organoekin, zein bere eskumenen esparruan.

Bestetik, Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrea, Nafarroako Gobernuak Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria, uztailaren 28ko 14/1999 Foru Dekretuaren bidez izendatua (1999ko uztailaren 29ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala). Egintza honetarako ahalmena Nafarroako Gobernuakan hartutako erabakiaren bidez eskuratu du.

Esku hartzen duten alde horiek hitzarmena egiteko lege gaitasuna aitortzen diote elkarri eta, horrenbestez

ADIERAZI DUTE:

Lehendabizikoa. Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeko Lege Organikoak ezarritako eskumen-banaketa kontuan izanik, eta maiatzaren 14ko 811/1999 Errege Dekretuak lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloan agintzen duen eginkizun eta zerbitzuen eskualdaketa ondoz, Nafarroako Foru Komunitateak eta Enpleguaren Institutu Nazionalak jotzen dute Nafarroan langabeziaren ondoriozko babesaren lurralde-kudeaketa berrantolatu egin behar dela, horrela honako hauek bermatu ahal izateko:

– Enpleguaren eta lanerako prestakuntzaren kudeaketa koordinaturik egotea langabeziaren ondoriozko babesarekin, modu horretan prestazioak norbaiti ezagutzeko eta prestazioak hartzeko prozedurek lotura izan dezaten langabeen eskuragarritasuna eta laneragarritasuna egiaztatzearekin eta, azken batean, haien laneratzearekin.

– Langabeei laguntzarik onena eman ahal izateko antolaketa eraginkorra.

Hori horrela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 4. artikulua xedatuari jarraituz, eta 30/1992 Legeko 6. artikulua aplikatuz, bi alderdiek lankidetzaren hitzarmen hau sinatzea erabaki dute. Hitzarmenak honako klausula hauek izanen ditu araubide.

Lehena. Jarduerak eta eginkizunak zehaztea.

1. Bere eskumenen esparruan arituz edo hitzarmen honen indarrez, kasu bakoitzean, Nafarroako Foru Komunitateak langabezi prestazioen eskatzaileek eta hartzaileek eginiko enplegu-eskaerak kudeatuko ditu, prestazioen kudeaketa-ekin koordinatuz, honako jarduerak eta eginkizunak hauen bitartez:

a) Langabeak enplegu-eskatzaile gisa inskribatzea.

b) Eskuragarritasuna eta laneragarritasuna egiaztatzea eta haien jarraipena egitea. Halaber, prestazio-hartzaileen eskaria berritzea.

c) Prestazio-hartzaile diren enplegu-eskatzaileak hautatzea eta horiei lanbiderako prestakuntza eta birmoldaketa ekintzak, gizarte lankidetzako lanak eta haien laneragarritasuna hobetzeko programak eskaintzea.

d) Prestazio-hartzaileak hautatu eta horiei enplegu egokia eskaintzea. Halaber, eskaintzak betetzeko xedez enpresetan egiten den aurkezpen-prozesuaren jarraipena egitea.

e) Autoenplegu-proiektuen bideragarritasunari buruzko txosten nahitaezkoa egitea, ordainaldi bakarreko langabezi prestazioa ordain dadila lortzea xede denean. Horretarako tramitazioa eta ebazpen-ematea klausula honetako 4. idatz-zatiak aurreikusitakoari jarraikiz eginen dira.

f) Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko legearen testu bategina onetsi zuen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 17. artikulua 1. eta 2. idatz-zatietan jasotako arau-hauste arin eta larriak –langabezi prestazio eta sorospenen hartzaile diren enplegu-eskatzailleek eginikoak– direla-eta zehapen-prozedura hastea, horren instrukzioa egitea eta, kasu bada, zehatzea, Estatuko legediak ezarritakoari jarraituz.

2. Hitzarmen honen indarrez, Nafarroako Foru Komunitateak langabezi prestazioen kudeaketan lagunduko du, honako jardura eta eginkizun hauen bitartez:

a) Enplegu bulegoetan diharduten Enpleguaren Institutu Nazionalako langileei arau-haustek jakinaraztea eta arau-hauste arin eta larriengatik langabezi prestazio eta sorospenen hartzaile diren enplegu-eskatzailleak zehatzeko prozedurak hasi izanaren berri ematea. Prozedura horien zergatiak izan daitezke enpleguaren edo prestakuntzaren kudeaketarekin zerikusia daukaten zitazio-etara agertu ez izana, enplegu-eskaria ez berritzea, enplegu-politika aktiboen neurrietan edo prestakuntza-ekintzetan parte hartzeari edo lan-eskaintza egoki bati ezezkoa ematea, edo enplegu-eskaintza bat betetzeko bertaratze-frogagiria ez itzultzea, eta baita, kasu bada, langabezi prestazioak etetea edo iraungitzea ekartzen duen zehapen bat ezartzea ere.

b) Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko legearen testu bategina onetsi zuen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 25.3 eta 26. artikuluetan aurreikusitako arau-hauste larriak edo oso larriak izan litezkeen gertakarien berri ematea enplegu bulegoetan diharduten Enpleguaren Institutu Nazionalako langileei, haiek azter ditzaten eta, kasu bada, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzara jo dezaten.

c) Prestazioen eskatzaile eta hartzaileen altak, bajak eta enplegu-eskatzaille gisa daukaten egoera jakinaraztea enplegu bulegoetan diharduten Enpleguaren Institutu Nazionalako langileei.

d) Langabezi prestazioen hartzaileak enplegu-eskatzaille aktiboak izatearen aldetik kontrolatzeko Estatuak eginiko planen exekuzioan laguntzea, bi administrazioen artean erabakitzen den moduan.

e) Aurreko jarduerak eta eginkizunak eginen dira bigarren klausulako 1. zenbakiko e) letran ezarritakoa ezertan galarazi gabe.

3. Ezertan galarazi gabe Enpleguaren Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Probintzialei dagozkien eginkizunak, alegia, laguntza-langileek, Prestazioen Zuzendariordetza Probintzialekoek eta erakundeko legelariak, enplegu bulegoen esparruan, betetzen dituztenak, Enpleguaren Institutu Nazionalak honako jardura eta eginkizun hauek eginen ditu, bere eskumenak egikaritzean:

a) Langabezi prestazio eta sorospenei buruzko informazio orokorra eta kasu bakoitzari buruzkoa.

b) Langabezi prestazioak eta sorospenak izapidatzea; zehazki, honako hauei dagokienez: langileengandik zuzenean jasotzea eskabideak eta dokumentazioa; langileari edo enpresari behar den dokumentazioa erreklamatzeko, kasu bada; eskabideak mekanizatzea eta espedienteak kontsulta informatikoekin osatzea; eta Prestazioen Zuzendariordetza Probintzialei esleituriko espedienteak ebatz ditzaten igortzea.

c) Langabezi prestazio eta sorospenen espedienteak aztertu eta ebaztea (aitorpena, ezezkoa, etetea, iraungipena, jarraipena, aukera eta luzapenak), baita aldatzea ere, salbu eta Nafarroako Foru Komunitateari dagokionean, hitzarmen honetako lehen klausulako 1. puntuko f) letran xedatuari jarraikiz, langabezi prestazioak eten edo iraungitzeko ebazpena ematea.

d) Langabezi prestazioei edo sorospenei dagozkien bestelako dokumentazioa jasotzea: bajak, ezgaitasun edo amatasunaren ondoriozko baja-agiriak, kontu-helbideratzeak, aurretiazko erreklamazioak eta abar. Halaber, horiek izapidatzea, edo, kasu bada, Prestazioen Zuzendariordetza Probintzialera igortzea.

e) Kontsultei zuzenean erantzutea, gorabeherak konpontzea eta bidegabeko kobrantzak nahiz langabezi prestazio eta sorospenen hartzaileen baimenak kudeatzea, edo, kasu bada, Prestazioen Zuzendariordetza Probintzialera igortzea.

Halaber, langabezi prestazioen arloko kekek eta iradokizunak jasotzea, horiei buruzko txostenak egitea eta horiek guztiak Prestazioen Zuzendariordetza Probintzialera bidaltzea, euren txostenarekin batera.

f) Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko legearen testu bategina onetsi zuen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 24.2 eta 25.3 artikuluetan jasotako arau-hauste arin eta larrien ondoriozko zehapen-prozedura hastea eta espedienteak Prestazioen Zuzendariordetza Probintzialesetara igortzea, aipaturiko prozedura ebazteko.

g) Betekizunak egiaztatzea, langabezi prestazio eta sorospenen eskatzaile eta hartzaileen luzapenak, bateraezintasunak eta irregulartasunak kontrolatzea, presentzia-kontrolerako edo zeharkako kontrolerako Estatuko planak aplikatuz edo, kasua bada, espedienteak Prestazioen Zuzendariordetza Probintzialesetara igortzea.

h) Prestazioen ziurtagirien izapidatze osoa egitea, prestazioen arduradunaren sinadura eta guzti.

l) Aurreko jarduerak eta eginkizunak eginen dira bigarren klausulako 1. zenbakiko e) letran ezarritakoa ezertan galarazi gabe.

4. Hitzarmen honen indarrez, Nafarroako Foru Komunitateak eta Enpleguaren Institutu Nazionalak elkarrekin lan eginen dute langabezi prestazio-ko ordainaldi bakarren izapidatze- eta ebazte-lanean, honako jarduera eta eginkizun hauen bitartez:

a) Nafarroako Foru Komunitateak prestazio ordainaldi bakarrean eskuratzeko eskabideak jasoko ditu, eta proiektuen bideragarritasunari buruzko txosten nahitaezkoa emanen du.

b) Enpleguaren Institutu Nazionalak, proiektuaren bideragarritasunari buruz Nafarroako Foru Komunitateak nahitaezko txostena eman ondoren, prestazioa ordainaldi bakarrean ordaintzeari buruzko erabakia hartuko du.

Baldin eta espediente batean, Nafarroako Foru Komunitateak emandako aldeko txostena egon arren, ordainaldi bakarri ezezkua ematea justifikatzen duten elementuak, prestazioari dagozkionak eta proiektuaren bideragarritasunarekin zerkusirik ez daukatena, hautematen badira, elementu horiek Nafarroako Foru Komunitateari jakinaraziko zaizkio, horien berri izan dezan.

c) Enpleguaren Institutu Nazionalak interesdunei eta Foru Komunitateari jakinaraziko die hartutako erabakia, hitzarmen honetako Koordinazio eta Jarraipen Batzordeak onesten dituen eredu araberak, eta horietan honako hauek adierazi beharko dira:

– Ebazpena eman dela proiektuaren bideragarritasunari buruz Nafarroako Foru Komunitateak emandako txostenean oinarriturik.

– Gizarte Segurantzaren kuotetarako kasu bakoitzean eman beharrekoa gerta litekeen diru laguntza izapidatzea, ebaztea eta ordaintzea, kasua bada, Nafarroako Foru Komunitatearen eginkizuna izanen dela, bere eskumenean egikaritze-esparruan.

– Ebazpenaren aurkako aurretiazko erreklamazioa Enpleguaren Institutu Nazionalako zuzendari probintzialari zuzendu behar zaiola, eta enplegu bulegoan aurkez daitekeela.

5. Enplegu-eskatzaileen prestazio-hartzaile egoeran izandako altak eta bajak jakinaraziko dizkio Enpleguaren Institutu Nazionalak Nafarroako Foru Komunitateari.

6. Klausula honetan jasotako jarduera eta eginkizunak horiek esleiturik dauzkaten administrazio-ko langileek eginen dituzte, euren eskumenean esparruan; dena den, enplegu bulegoren batean administrazioetako bateko langilerik ez badago, edo administrazio horietako bateko langileek objektiboki balioetsitako lan-pilaketa gehiegizkoak jasaten dituztenean, halako neurrian non jendeari behar bezalako zerbitzua ematea ezinezkoa bilakatzen den, beste administrazio-ko langileek lagundu egiten dute, aurretiazko akordio bat dela medio, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak eta Enpleguaren Institutu Nazionalako zuzendari probintzialak bulego bakoitzerako adosturiko moduan; bereziki, honako hauei dagokienez:

a) Langabetuak enplegu-eskatzaile gisa inskribatzea eta enplegu-eskaerak berritzea.

b) Langabezi prestazio eta sorospentarako eskabideak eta dokumentazioa jasotzea, bai eta aurkezpen-unean beste izapidatzerik behar ez duten bestelako dokumentuak ere (bajak, ezgaitasun edo amatasunaren ondoriozko baja-agiriak, kontu-helbideratzeak eta abar), eta espedienteak eta dokumentazioa igortzea, dela bulegoan dauden Enpleguaren Institutu Nazionalako langileei, dela Enpleguaren Institutu Nazionalak finkatzen dituen Prestazio Unitateei.

c) Langabezi prestazio eta sorospenei buruzko informazio orokorra, bai eta inprimakiak entregatzea ere, Enpleguaren Institutu Nazionalak berariaz horretarako argitaratuak.

Bigarrena. Enplegu-kudeaketaren eta langabezi prestazioen arteko koordinazioa.

1. Enplegu-kudeaketaren eta langabezi prestazioen arteko koordinazioa honako oinarri hauei jarraikiz eginen da enplegu bulegoen sarean:

a) Prestazioen kudeaketa eta kontrolari dagozkion jarduerak eta eginkizunak –hitzarmen hone-tako lehen klausulako 3. zenbakian ezarritakoak– egiteko, Enpleguaren Institutu Nazionalak bere langileetatik behar adina kokatuko ditu enplegu bulego bakoitzean jarduera eta eginkizun horiek eraginkortasunez betetzen direla bermatzeko. Nafarroako Foru Komunitateak bermatuko du hitzarmen honen lehen klausulan aipatutako jarduera guztiak eraginkortasunez egiteko behar diren neurriak hartzen direla.

b) Enpleguaren Institutu Nazionalak bulegoen sarean bere langileentzat dauden postu hutsak beteko ditu, eta langile horiek ordeztu edo lekuz aldatu ahalko ditu.

c) Koordinazio eta Jarraipen Batzordeak onesten duen moduan, bi administrazioek langileria, leku eta baliabide materialei dagozkien beharri-zenak egokitzea hitzartu ahalko dute, bai hitzarmeneko lehen klausulako 1 eta 2 puntuen exekuzioa bermatzeko, bai aurreko a) letrak ezarritakoa bermatzeko ere, eta bulegoen sarean aldaketak gertatzen direnean.

d) Enplegu bulegoen sarean langabezi prestazioak kudeatzen dituzten Enpleguaren Institutu Nazionalako langileak, ondorio guztietarako, institutu horren menpekoak izanen dira, ikuspegi organiko eta funtzionaletik. Dena den, ordutegiarekin zerikusia daukaten antolaketa-alderdiak, erabiltzaileei kasu egiteari dagokionez eragina daukatenak, Nafarroako Foru Komunitateak oro har bulego horietan lan egiten duten langile guztientzat finkaturikoak izanen dira.

e) Enplegu bulego bakoitzean, Nafarroako Foru Komunitateak izendaturiko eta organiko nahiz funtzionalki haren menpekoa izanen den bulegoko zuzendari bat izanen da. Bulegoko zuzendariaren ardura izanen dira Bulegoaren antolaketa eta barne koordinazioa, bai eta jendaurreko ordutegia betetzea. Erabiltzaileei modu egokian eta behar adinako neurrian kasu egiten zaie-bermatzeko, bulegoko zuzendaria bete beharreko eginkizunak koordinatzearen ardura izanen da, eta behar diren neurriak hartuko ditu, bulegoan eskueran dauden baliabide guztiak dagokienez. Halaber, bulegoan prestazioen arduradun eginkizunetan diharduenarekin koordinatuz, bulegoko langile guztientzat behar diren aginduak

emanen ditu, Enpleguaren Institutu Nazionalako langileei dagokienez.

f) Enplegu bulego bakoitzean Enpleguaren Institutu Nazionalak izendaturiko prestazioen arduradun bat izanen da, prestazioen zuzendariorde Probintzialaren eta Enpleguaren Institutu Nazionalaren zuzendari probintzialaren menpekoa, organiko eta funtzionalki. Aurreko e) letrak aurreikusitakoa ezertan galarazi gabe, prestazioen arduradunaren eginkizuna izanen da bulegoan dauden Enpleguaren Institutu Nazionalako langileen jarduerak eta eginkizunak antolatu, zuzendu eta ikuskatzea, ordutegia betetzen ote den kontrolatzea eta institutuko zuzendari probintzialari helaraztea langile horiek aurkezturiko baimen, lizentzia eta opor eskabideak, bulegoko zuzendariaren txostena erantsita.

g) Bulegoko zuzendariak, prestazioen arduradunarekin koordinaturik,

– Bulegoan dauden Enpleguaren Institutu Nazionalako langileei behar duten lekua esleituko die, bertan guztira dauden pertsonen kopuruarekiko, lan-zamarekiko eta prestazio-espeditenteen artxibatze-beharriaren arabera proportzionaltasun irizpideak kontuan izanik.

– Enpleguaren Institutu Nazionalako langileak bulegoaren egitura, jendearekiko kontaktua eta bulegoko zirkuitu eta prozesuen nondiknorako logikoa kontuan izanik kokatuko ditu bertan.

h) Enplegu bulego bakoitzean INEM anagrama agertuko da errotuluetan eta identifikazioan, Nafarroako Foru Komunitateak erabakitzen duen anagramarekin batera.

2. Enplegu bulegoetako jarduera lankidetzan arituz, elkarri informazioa eta laguntza emanez eta kontsulta eginez gauzatu da, enpleguaren eta langabezi prestazioen kudeaketa koordinatua- ren eraginkortasuna eta aipaturiko prestazioen kontrola bermatzeko. Gerta litezkeen disfunczioak, ezadostasunak edo gorabeherak ahalik eta epe laburrenean ebatziko dira, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak eta Enpleguaren Institutu Nazionalako zuzendari probintzialak batera esku hartuz.

Konplexuak izateagatik berehalako erabakia hartzen uzten ez duten gaiak hitzarmenaren Koordinazioa eta Jarraipena egiteko Batzordean sortuko den Koordinazio Azpibatzeordeari helaraziko zaizkio, eta horrek ebatziko ditu hitzarmen honetako hirugarren klausulako 2. puntuak ezarritakoari jarraikiz aurkezten zaizkion gaiak.

3. Enpleguaren eta langabezi prestazioen kudeaketa koordinatuaren alderdi zehatzen arloko lankidetzaren honela egiten da:

a) Enpleguaren Institutu Nazionalak enplegu bulegoetan enplegu-eskatzailerik gisa alde aurretik inskribatua egotea eskatuko du prestazio eta sorospenen arloko hasierako altarako eskabidea izapidatu ahal izateko, eta haiek jarraitzeko edo hartzeko eskabidea izapidatzeko, eta baita itxaronaldiak frogatzeko ere; hori guztia, indarreko legeak xedatuari jarraikiz.

Nafarroako Foru Komunitatean enplegu-eskatzailerik gisa inskribatzean lurraldearen gainerako eskualdeetan inskribatzean jasotzen diren oinarriko datu berberak jasoko dira; hain zuzen ere, eskatzaileraren identitatea eta kokapena eta eskeraren eguna eta egoera egiaztatzea ahalbidetuko duten datuak dira.

b) Nafarroako Foru Komunitateak, hitzarmen honetako lehen klausulako 1. zenbakiko b) letrak jasotakoari jarraituz, langabezi prestazioak hartzen dituztenen eskuragarritasuna eta laneragarritasuna egiaztatuko ditu, enplegu-eskaera berrituko du eta, kasua bada, demandaren baja egiten du, prestazio horiek hartzen dituzten guztientzat Enpleguaren Institutu Nazionalak oro har ezarritako moduan eta maiztasunaz, eta institutu horrek urte bakoitzerako egiten duen helburuen arabera plangintzaren barruan. Institutuak plangintza hori kokaturik dauka laneratzeari eta kolektibo horren baitako iruzurraren aurkako borrokari bultzada emateko bere ekintza-plan orokorren barruan, eta plan horiek Nafarroako Foru Komunitatearekin adosturikoak dira.

c) Hitzarmen honetako lehen klausulako 1. zenbakiko c) eta d) letrak jasotakoari jarraituz, Nafarroako Foru Komunitateak bitartekotza-neurriak eta politika aktiboak aplikatuko dizkie langabezi prestazioen hartzaileei, Enpleguaren Institutu Nazionalak urte bakoitzerako egiten duen helburuen arabera plangintzaren barruan. Institutuak plangintza hori kokaturik dauka laneratzeari eta kolektibo horren baitako iruzurraren aurkako borrokari bultzada emateko bere ekintza-plan orokorren barruan, eta plan horiek Nafarroako Foru Komunitatearekin adosturikoak dira.

d) Nafarroako Foru Komunitateak enplegua kudeatzeko bere prozesuak halako moduan antolatuko ditu non honakoa bermatuko baitute:

– Prestazioen hartzaileak honela hartuak izatea: enplegu-eskatzailerik gisa, euren laneratze-aurkari bultzada emateko neurrietarako edo laneratze-prozesuetarako hautatuak izan eta haietan

berehala parte hartu ahal izateko osoki eskueran daudenak.

– “Enplegu egokia” eta “laguntza sozialeko lanak” kontzeptuak Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategineko 213.2. eta 3. artikuluko eta jurisprudentziak zehatzen duten moduan aplikatzea prestazioen hartzaileei.

– Zehapen-prozesuak enplegu bulegoetan diharduten Enplegu Institutu Nazionalako langileei jakinaraztea, hitzarmen honetako lehen klausulako 2. zenbakiko a) letrak ezarritakoaren arabera.

e) Nafarroako Foru Komunitateak bermatuko du aurreko b), c) eta d) letrak xedaturikoa bere lurralde-eremuko irabazi asmorik gabeko lan agentziek eta Enplegurako Zerbitzu Integratueta-ko erakunde elkartuek ere aplikatuko dutela.

f) Nafarroako Foru Komunitateak egiten ditu hitzarmen honek ezarritako jarduerak eta eginkizunak, legezko xedapenak eta Enpleguaren Institutu Nazionalak emandako jarraibide orokorrak aplikatuz. Hori guztia, hitzarmen honen Koordinazio eta Jarraipena egiteko Batzordeak onesten dituen zehaztasunen arabera.

4. Nafarroako Foru Komunitateak eta Enpleguaren Institutu Nazionalak, hitzarmen honen Koordinazio eta Jarraipen Batzordeak onetsitakoari jarraikiz, behar diren bitartekoak antolatuko eta erabakiak hartuko dituzte, enpleguaren eta langabezi prestazioen gaietako sistema informatikoak elkarrekin konektatzeko, halako moduan non honakoak bermatu beharko baitira:

a) Enplegu-eskatzailerik gisa inskribatzeari buruzko kontsulta informatikoa.

b) Pertsona fisikoak uniformeki identifikatzea etengabe gaurkoturiko datu base komun batean.

c) Enplegu-egoerari eta prestazioei buruz elkarri kontsultak egin ahal izateko sarbidea izatea.

d) Altak eta bajak bataren zein bestearen datu baseetara automatikoki helaraztea.

e) Hartzaileak Komunitatearen lurralde-eremu-ara edo bertatik kanpora lekuz aldatu ahal izatea.

5. Nafarroako Foru Komunitateak eta Enpleguaren Institutu Nazionalak:

a) Elkarri helaraziko diote, hilabetero, euren jarduerari buruzko oinarriko informazio indibidualizatua, baldin eta jarduera horiek enplegu-eskatzailerik gisa prestazio-hartzaileengan eragina badaukate.

b) Intereskoa izan litekeen informazioa eta dokumentazioa azkar heda dadila bermatuko

dute, bulegoetan zerbitzuak ematen dituzten langile guztiei helarazteko; bereziki, langabezi prestazio eta sorospenen informazio eta kudeaketa egokian zuzeneko ondorioak izan ditzaketen informazio eta dokumentazioari dagokienez.

c) Elkarri ahalik eta arinen emanen diote bulegoetan izandako langile-aldaketan eta izendapenen berri.

d) Elkarrekin batera aurrera eramane dituzte langileei laguntza tekniko eta etengabeko prestakuntza emateko sistema bat ezarri eta mantentzeko beharrezkoak diren jarduerak. Sistema horrek lagundu beharko du enplegu-kudeaketaren eta langabezi prestazioen kudeaketaren arteko koordinazioa egiten.

Hirugarrena. Hitzarmena aplikatzea.

1. Hitzarmen hau loteslea da sinatzen duten alderdientzat. Alderdi horiek hitzarmenaren osagarriak diren itunak izenpetu ahalko dituzte, eta horren addenda gisa erantsi ahalko dituzte.

Enpleguaren Institutu Nazionalak, Koordinazioa eta Jarraipena egiteko Batzordeari hala jakinarazi ondoren, hitzarmen honetako bigarren klausulako 3. zenbakiko f) letrak eta 4. zenbakiak adierazten dituzten zehaztasunak gaurkotuko ditu; beharrezkotzat jotzen dituen egokitzapenak egiten ditu, eta prozeduran edozein aldaketa egitea erabaki ahalko du, dela arau-aldaketa baten ondorioz, dela indarreko administrazio-prozedurak arindu eta sinplifikatzeko xedez, langabeziari aurre egiteko babesaren arloan, baldin eta, betiere, hitzarmen honetan jasotako jarduera eta eginkizunak aldatu beharrik ekartzen ez badute.

2. Lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloan Enpleguaren Institutu Nazionalak eginiko kudeaketa Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeko akordioak, zeina maiatzaren 14ko 811/1999 Errege Dekretuak jasotzen baitu, 3. zenbakiko e) letran Koordinazio eta Jarraipen Batzorde bat ezartzen du, eta horixe bera ere izanen da hitzarmen honen jarraipena egiteko Batzordea. Zeregin horretan, honako funtzio hauek beteko ditu:

a) Sor litezkeen interpretazio- eta betetze-araozak ebatzi.

b) Hitzarmenaren esparruan lankidetzeta eta elkarlanean aritzea eta, haren addenda gisa, akordio osagarriak sina daitezzen sustatzea.

c) Hitzarmen honek ezartzen dizkion eginkizunak betetzea.

d) Hitzarmenaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

e) Klausula honetako 1. zenbakiak aipatzen dituen egokitzapenak ezagutzea, baldin eta arau-aldaketa baten ondoriozkoak edo langabeziaren aurreko babesaren arloko administrazio-prozesu orokorren aldaketa baten ondoriozkoak badira, eta hitzarmen honek jasotako jarduerak eta eginkizunak aldatzea ekartzen duten egokitzapenak erabakitzea.

– Batzordeak, hitzarmenari dagokionez, gutxienez ere urtean behin egiten du bilera.

Batzordeko lehendakaritza urtez urte txandakatuko da, eta hasierako lehendakaritza Estatuko administrazioarena izanen da.

Batzordearen lan-talde bat eratuko da, "Enpleguaren eta langabezi prestazioen kudeaketarako lankidetzeta hitzarmeneko Koordinazio Azpibatzordea" izenekoa, hitzarmenaren aplikazioaren alderdi zehatzak ebazteko eta, bereziki, enplegu bulegoen koordinazioari dagokionez, sor daitezkeen funtzionamendu-arazoei soluzio azkar eta puntuala emateko.

Azpibatzerde horrek bi hilean behin egiten ditu bilera, edo edozein alderdi sinatzailek eskatuta, eta Nafarroako Foru Komunitateko 4 ordezkari eta Enpleguaren Institutu Nazionalako 4 ordezkari osatuko dute.

3. Hitzarmen honek indarra izanen du sinatzen denetik 2001eko abenduaren 31ra arte.

Hitzarmena besterik gabe luzatuko da, urte naturaletan, alderdi sinatzaileetako batek espresuki salatzen duenean izan ezik.

Aurreko lerroak aipatzen duen salaketa gutxienez ere indarraldi bakoitza amaitu baino sei hilabete lehenago egin beharko da. Betiere, indarraldiak iraunen du beste hitzarmen bat sinatu arte edo prestazioak kudeatzeko eredu berri bat antolatu arte.

Hitzarmen honen administrazio-izaera kontuan izanik, administrazioarekiko auzietako jurisdikzioari dagokio hitzarmenaren exekuzioak sor litzakeen gatazkak ebaztea.

4. Erabiltzaileei emandako zerbitzua mantentzea bermatzeko xedez, bi administrazioetako arduradunek, bai probintziakoek bai udalerrietakoek, erabaki ahalko dute, beharrezkoa bada, eta hitzarmena sinatzen denetik gehienez ere 3 hilabetekoa izanen den epe iragankor baterako, hitzarmenean jasotako jardueren eta eginkizunen banaketan behar diren neurriak har daitezela, antolaketa-egiturak eta informazio edo prestakuntza prozesuak operatibizatzen diren eta bi administrazioen zerbitzuan diharduten langileak euren

eskumenen arloan eginkizunetara moldatzea lortzen den bitartean.

5. Hitzarmen hau Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitateko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Euren adostasunaren agergarri, eta hala ager dadin, bi alderdiek lankidetzaren hitzarmen honen lau ale sinatu dituzte, adierazitako tokian eta egunean.

.....(a)n, 2001ekoaren(e)an.

Nafarroako Foru Komunitatearen izenean, Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

Estatuko Administrazioaren izenean, Enpleguaren Institutu Nazionalako zuzendari nagusia: M^a Dolores Cano Ratia

Lankidetzaren hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean informazioa eta estatistika trukatzeko

Nafarroako Parlamentuko 162. artikulua eza-eritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzen da: "Lankidetzaren hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean informazioa eta estatistika trukatzeko".

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lankidetzaren hitzarmena, Enpleguaren Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean informazioa eta estatistika trukatzeko

.....(e)an, 2001eko(a)ren(e)an.

BILDURIK

Alde batetik, María Dolores Cano Ratia andrea, Enplegu Institutu Nazionalako zuzendari nagusia, urtarrilaren 29ko 165/1999 Errege Dekretuaren bidez (urtarrilaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofiziala) izendatua. Eskudun da Hitzarmen hau izenpetzeko, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 6. artikuluko lehen idatz-zatiari urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez ezarritako testuak xedatuaren arabera. Hain zuzen ere, horrek dio administrazio orokorrak eta harekin lotura duten edo haren menpekoak diren erakunde publikoek lankidetzaren hitzarmenak egin ahalko dituztela autonomia erkidegoetako administrazioetako organoekin, zein bere eskumenen esparruan.

Bestetik, Nuria Iturriagoitia Ripoll andrea, Nafarroako Gobernuaren Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria, urtarrilaren 28ko 14/1999 Foru Dekretuaren bidez izendatua (1999ko urtarrilaren 29ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala). Egintza honetarako ahalmena Nafarroako Gobernuakan hartutako erabakiaren bidez eskuratu du.

Esku hartzen duten alde horiek hitzarmena egiteko lege gaitasuna aitortzen diote elkarri eta, horrenbestez

ADIERAZI DUTE

LEHENDABIZIKOA.

Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeko 6. artikuluko 1. idatz-zatiak, urtarrilaren 13ko 4/1999 legeak emaniko testuaren arabera, gaitasuna ematen die Estatuko Administrazio Orokorrari edo hari loturiko edo haren mendeko erakundeei autonomia erkidegoetako administrazioen kasuan kasuko organoekin lankidetzaren hitzarmenak izenpetzeko, dauzkaten eskumenen esparruan.

BIGARRENA.

Maiatzaren 14ko 811/1999 Errege Dekretuaz Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zaie Enplegu Institutu Nazionalak lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloan egiten duen kudeaketa; eskualdatze horrek 1999ko urriaren 1etik aurrera izan du indarra.

HIRUGARRENA.

Eskualdatzeko akordio hau gauzatzeko, beharrezkoa da Enpleguaren Institutu Nazionalak eta

Nafarroako Foru Komunitateak zenbait hitzarmen sinatzea, eskualdaketaren egunera iritsita, autonomia erkidegoak eskumen horiek hartzeak ez ditzan aldaraz lan merkatuari buruzko informazioaren maila eta berma dezan herritarrei goitik beherako zerbitzua emanen zaiela, enplegu zerbitzu publiko baten erabiltzaileak diren aldetik.

Bi administrazioen arteko harremanen ardatz izan behar duen lankidetzaz, Enpleguaren Institutu Nazionalak eta Nafarroako Foru Komunitateak elkarrekin finkaturiko helburuak betetzerakoan administrazio publikoek modu eraginkorrean jarduteko printzipioaren barruan eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko efizientziaren printzipioaren barruan kokatu behar da, herritarrei eraginkor zerbitzatu ahal izateko.

LAUGARRENA.

Sinatu beharreko hitzarmenaren artean, bi administrazioek enplegua eta langabezi prestazioak kudeatzeko Lankidetzaz Hitzarmenaz gainera, beharrezkoa da hitzarmen hau sinatzea, eskualdaketaren efektiboaren esparrua osatzeko, informazioaren eta estatistikaren arloko trukeari dagokionez.

BOSGARRENA.

Hitzarmen hau sinatzearekin, aurrera eramaten dira maiatzaren 14ko 811/1999 Errege Dekretuaren eranskineko 3. idatz-zatian aurreikusitakoak, hain zuzen ere Estatuko Administrazioaren eta Autonomia erkidegoaren funtzio konkurrente eta konpartituak eta lankidetzaz modu instituzionalak, administrazio bataren eta bestearen artean informazioaren eta estatistikaren trukea bideratzeko behar diren mekanismoen bitartez. Hauxe bilatu nahi da horrekin: enplegu eskaintzak eta eskariak

berdintzea, lan merkatuko bitarteko eta Estatua- ren xedeetarako estatistikak argitaratzea.

Horren indarrez, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erki- dearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 4. artiku- luak ezarritakoa betez –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emaniko testuari jarraituta– eta 30/1992 Legeko 6. artikulua aplikatuz, bi aldeek erabaki dute ondoko lankidetzaz hitzarmena sinatzea. Hona

KLAUSULAK

Lehenbizikoa. Hitzarmenaren xedea


Hitzarmen honen xedea da Estatuko Adminis- trazioaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren arteko lankidetzaz, bakoitza bere eskumeneren esparruan, informatika eta esta- tistika trukatzeko.

Bigarrena. Informazioa trukatzeko.

1. Enpleguaren Institutu Nazionala erakunde autonomoak eta Nafarroako Foru Komunitateak elkar behartzen dute informazioa trukatzera, hitzarmen honetan ezarritako prozeduraren ara- bera, bi administrazio publikoek lan merkatua hobeki ezagut dezaten eta, halaber, lan merkatua- ren bitartekaritza funtzioei dagozkien jarduketeta- tik ondorioztatzen den informazioaren erregistroa eta tratamendua eskueran izan dezaten, egun estatistikaren erabilerari dagokion maila bermatuz.

2. Informazioa trukatzeko prozedurak ondoko ezaugarriak izanen ditu:

a) Enpleguaren Institutu Nazionalak SILE (Lan Informazioaren Sistema, Enpleguaren arloan) informazio sistemaren erabilera laga dio Nafarroa- ko Foru Komunitateari, ondoko eskemari jarraituz:



OE: enplegu bulegoa

CC: zentro laguntzailea

AC: enplegu agentzia

b) Transferitutako enplegu bulegoek eskualdaketan efektiboa izan baino lehen SILEra sartzeko zeukan ekipamendu guztia kontserbatuko dute; beraz, autonomia erkidegoak informazio sistema hori erabili ahal izanen du azpiegituran inongo aldaketarik egin beharrik gabe.

c) Aipatu bulegoetatik Enpleguaren Institutu Nazionalera datu basera sartzeari denbora errealean egiten da, eskualdatutako kudeaketaren ondorioz lurralde autonomikoan ukituriko koketiboei buruzko informazioa gaurkotu eta kontsultatzen.

d) Halaber, Enpleguaren Institutu Nazionalak onartzen du, lan arloko kudeaketaren eskualdatzea efektiboa den unetik aurrera, Institutuko datu base zentralen lurralde autonomikoko kudeaketak ukituriko kolektiboei buruz dagoen informazioaren jabea administrazio autonomikoa dela; hori dela eta, erabileraren lagapenak bermatu beharko du informazio gaurkotu horren eskuragarritasuna, autonomia erkidegoak zehaztutako denboran eta moduan.

e) Funtzionaltasun horri segurtasunez aurre egin ahal izateko, Enpleguaren Institutu Nazionalak bere gain hartzen du ustiatze autonomiko bat Nafarroako Foru Komunitateak egokien jotzen duen lekuan jartzeko konpromisoa; Enpleguaren Institutu Nazionalaren erantzukizuna izanen da zentro hori finantzatzea, ekipamendu informatikoan eta ekipoen instalazioan eta mantentzean egin beharreko inbertsioari dagokionez.

3. Ustiatze Autonomikoak ondoko ezaugarriak izanen ditu:

a) Ustiatze Autonomikoak behar duen hardware eta softwarea izanen ditu, informazio autonomikoari buruzko datu base bat eduki ahal izateko –Estatuko datu basearen errepikapena izanen da, azken hori baita benetan gaurkotzen dena SILEren bitartez eskualdatutako funtzioak kudeatzen dituzten bulegoetatik–. Datu base hori autonomia erkidego bakoitzerako independentea izanen da, eta ez du Estatuko gainerako lurraldeei buruzko informaziorik edukiko, non eta kudeatzen dituzten pertsonen buruzko informazioa ez duten.

b) Halaber, datu base hori ustiatzeko behar diren tresnak edukiko ditu; ustiatze horrek bidea eman du kudeaketa-txostenak edo bestelako txostenak lortzeko, bai eta era guztietako estatistikak lortzeko ere.

c) Enpleguaren Institutu Nazionala izanen da bere zentroaren eta Nafarroako Ustiatze Autonomikoaren arteko datu-transmisioko lineen bidezko konexioaren kostuak finantzatzeko ardurua hartuko duena.

d) Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartuko du datu base autonomikoa ustiatzeko erantzukizuna, giza baliabideei edo bestelako baliabideei dagokienez; hain zuzen ere, nahi diren irizpideen arabera, estatistika edo kudeaketa-txostenak lortzeko aplikazioak garatzeko behar diren baliabideak; halaber, datu base hori dagoen

ekipo informatikoeekin jarduteko erantzukizuna hartuko du.

Nafarroako Foru Komunitateak bere datu base automatikoa ustiatzeko behar diren aplikazio informatikoak ez dituen bitartean, Enpleguaren Institutu Nazionalak datu base zentrala ustiatzeko erabiltzen direnen erabilera lagako dio; horretarako, aplikazio egokitu horiek instalatuko dizkio Ustiategi Autonomikoan.

Enpleguaren Institutu Nazionalak datu base errepikatua administratzeko erantzukizuna hartuko du.

4. Lurralde autonomikoan Nafarroako Foru Komunitateari eskualdaturiko funtzio guztiak edo haien zati bat partekatuko dituen zentro laguntzailerik edo/eta enplegu agentziarik egotekotan, Enpleguaren Institutu Nazionalak zentro edo/eta agentzia horiek SILErekin konektatzeko aukerak aztertuko ditu; halaber, horri buruzko finantzaketa plan bat proposatuko du, zeinean Enpleguaren Institutu Nazionalak bere aurrekontu-ahalmenaren araberrako parte-hartzea izanen duen.

Hirugarrena. Komunikazioen arloko prozedura.

Hitzarmen honen xede den informazio-trukea egiteko behar den azpiegitura Enpleguaren Institutu Nazionalaren erantzukizunaren menpe eta haren kargu gelditzen da; halakotzat hartuko da enplegu bulegoen eta Enpleguaren Institutu Nazionalaren arteko komunikazioetarako edo Ustiategi Autonomikoaren eta EINen komunikazioetarako egun dagoen sistema.

Nafarroako Foru Komunitateak, Enpleguaren Institutu Nazionalarekin ados jarrita, autonomia mailako datuen komunikaziorako sareak diseinatu eta ezarri ahal izanen ditu, enplegu bulegoak eta Ustiategi Autonomikoarekin edo bestelako informazio-sistemekin konektatzeko. Komunikazioen proiektu berria Koordinazio eta Jarraipen Batzordean onetsi beharko da, eta autonomia erkidegoak finantzatuko du.

Laugarrena. Koordinazio informatikoko funtzioak lurralde autonomikoan.

Enpleguaren Institutu Nazionalaren koordinazio informatikoko unitateek, Institutuak Nafarroako lurraldean duen Institutuko zuzendaritza probintzian kokatuta daudenek, laguntza tekniko eta babesa emanen diete bi administrazioetako kudeatzaileei, bai EINaren lurralde zuzendaritzetan daudenei, bai autonomia erkidegoko enplegu bulegoetan daudenei.

Koordinazio Informatikoko Unitatea (KIU) aurreko lerrokan deskribatutako funtzio orokorreari lurralde zuzendaritza bakoitzaren egoitzatik –eskumenak efektiboki eskualdatu aurreko unean eta informazio sistemaren (SILE) lagapenak irauten duen bitartean– erantzuten dien pertsonen taldea da. Alde bakarra da, behin eskualdaketa hori egin ondoren, KIUA EINeko nahiz bi administrazioetako langileez osaturik egon daitekeela, baldin eta Nafarroako Foru Komunitateak unitate horietan teknikari informatikoak sartu nahi baditu.

KIUen lan prozedura inplikaturiko bi administrazioetako arduradunek ematen dituzten jarraibideen arabera erregulatuko da, eta hitzarmen honetako Koordinazio eta Jarraipen Batzordeak onetsi beharko du.

Bosgarrena. Eranskinen izaera juridikoa.

1. Hitzarmen honekin batera datozen eranskinak haren zati dira eta, horrenbestez, alde sinatzaileek bete beharrekoak dira.

2. Eranskinak Koordinazio eta Jarraipen Batzordean gaurkotu beharko dira; batzorde horrek, gainera, hitzarmen honen sinatzaile diren aldeei gaurkotze horien ondoriozko gehigarriak sinatzeko proposatuko die.

Seigarrena. Hitzarmenaren Koordinazio eta Jarraipen Batzordea.

Enplegu Institutu Nazionalak lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloan egiten duen kudeaketa Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zion akordioaren 3. idatz-zatiko e) letran aurreikusitako Koordinazio eta Jarraipen Batzordea, maiatzaren 14ko 811/1999 Errege Dekretuan ere jasotakoa, hitzarmen honen jarraipena egingen du, eta ondoko eginkizunak izanen ditu hura dela-eta:

a) Hitzarmena interpretatu eta betetzerakoan gerta daitezkeen arazoak erabakitzea.

b) Bi administrazioen arteko lankidetzeta eta elkarri laguntza ematea hitzarmenaren markoan eta haren gehigarri gisa erantsitako akordio osagarriak sinatzea.

c) Hitzarmen honek esleitzen dizkion funtzioak garatzea.

d) Hitzarmena jarraitu eta ebaluatzea.

Batzordea gutxienez ere urtean behin bilduko da hitzarmen honi buruz hitz egiteko.

Batzordeko lehendakaria txandaka hautatuko da urtero. Lehenbizi, Estatuko Administrazioak hartuko du bere gain lehendakaritza.

Lantalde bat eratuko da batzordearen baitan "Informazioa eta Estatistikaren Trukatzea Koordinatzeko Azpibatzerdea". Aipatu batzordeak informazioaren eta estatistikaren trukean gerta daitezkeen gorabeheren jarraipen puntuala egingen du, suerta daitezkeen funtzionamendu arazoei konponbide azkar eta puntuala emateko. Azpibatzerdean Enpleguaren Institutu Nazionaleko lau ordezkari eta Nafarroako Foru Komunitateko lau ordezkari egonen dira, eta gutxienez ere bi hilabetez behin edo sinatzaile diren aldeetako batek eskatuta bilduko da.

Zazpigarrena. Informazio prozesuetarako ekipo informatikoak konpondu, mantendu eta kontserbatzeko egun dauden kontratuetan subrogatzea.

1. EINek kanpoko enpresa batzuekin du kontratatua Nafarroako Foru Komunitateari transferituriko ekipo informatikoen konpontze, mantentze eta kontserbazio lanak, Estatuko gainerako lurraldeetako baldintza beretan. Kontratu hori 2001eko ekainaren 30ean bukatuko da.

Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartzen du konpontze, mantentze eta kontserbazio kontzeptuengatik transferitutako kopuruak konpontze, mantentze eta kontserbazio-kontratuei eranstea betebeharra, behin indarreko kontratuetan agertzen diren eskubide eta betebeharretan subrogatu ondoren. Kontzeptu horien balioespen ekonomikoa transferentziaren kostu efektiboan sartuta dago, 1999ko apirilaren 28an Transferentzien Batzorde Mistoak onetsitako testuari jarraituz.

2. Nafarroako Foru Komunitatea ekipo informatikoen konpontze, mantentze eta kontserbazio kontratuen ondoriozko eskubide eta betebeharretan subrogatzeko beharrezkoa da adjudikazioa hartu duten enpresek aldeztatik horrekin ados daudela adieraztea. Horretarako, EINek enpresa horiei subrogazioa jakinaraziko die, Administrazio

Publiko berria obligazio-hartzaile hartu eta Enpleguaren Institutu Nazionala kontratuan hitzartutakotik liberatzearekin eta kasuan kasuko likidazio ekonomikoak egitearekin ados dauden adieraz dezaten.

Zortzigarrena. Hitzarmena efektiboa izateko data.

1. Hitzarmen honek 2001eko abenduaren 31ra arte izanen du indarra.

2. Hitzarmena besterik gabe luzatuko da urte naturalarekin batera, sinatzaile diren aldeetako batek aldeztatik amaiazatzen hartzen ez badu.

Aurreko lerrokadan aipatzen den amaiazatzea dagokion indarraldia bukatu baino sei hilabete lehenago, gutxienez ere, gertatu behar da. Amaiazatutako hitzarmenean hartuako konpromisoek indarrean jarraituko dute harik eta beste hitzarmen baten testua onetsi arte.

3. Hitzarmen honetan jasotako betebeharretako edozein ez beteetzeak eskubidea emanen dio beste Administrazioari hitzarmena amaiazatzen dadin eskatu eta hura deuseztatzeko, aurreko lerrokadan ezarritakoari jarraituz.

Bederatzigarrena. Jurisdikzioa.

Hitzarmen hau administratiboa da eta haren edukia dela-eta sor daitezkeen eztabaidak administrazioarekiko auzibideen jurisdikzio ordenan ebatziko dira.

Aurreko guztiarekin bat datozeala adierazteko, bi alderdiek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, hasieran esandako toki eta egunean.

Enpleguaren Institutu Nazionaleko zuzendari nagusia: M^a Dolores Cano Ratio

Nafarroako Gobernuak Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, euskararen normalizaziorako lanen barrenean halako inkesta soziolinguistiko bat egiteko deialdiaren egokitasunari buruzkoa

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak euskararen normalizaziorako lanen barrenean halako inkesta soziolinguistiko bat egiteko deialdiaren egokitasunari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari:

Aurrekariak:

Behatokiak, urriaren 16an, Nafarroako Parlamentuari txosten bat helarazi zion; txostenean esaten zenez, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak, maiatzaren 16ko 94/2001 Ebazpenaren bidez, deialdi bat eman zuen argitara Europar Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak (ingeleza, frantsesa eta alemana) Nafarroako Foru Komunitatean zen-

batek dakizkiten neurtzeko inkesta soziologikoa lehiaketa bidez kontratatzeko; ezarri zen gehieneko aurrekontua 12.000.000 pezetakoa izan zen

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko Hizkuntzaren Garapen, Programazio eta Ikerketa Zerbitzuarentzako Nafarroako Parlamentuak onetsitako aurrekontuak hizkuntza normalizaziorako direla kontuan izanik, eta hizkuntza politika baldin bada bertako hizkuntzentzako edo statusen bat aitortzen zaien hizkuntzentzako –atzerriko hizkuntza horietako batekin ere ez da hori gertatzen– aplikatzen den politika, arras zaila da ulertzea kontusail horrekin ordaintzeko modukoa izatea atzerriko hizkuntzen egoera soziolinguistikoari buruzko azterlana.

Horregatik, Batasuna Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuari hurrengo jabeldura proposatzen dio ondokoak ezagutzeko Osoko Bilkuran:

- Nola egokitzen da deialdi hori euskararen alde Nafarroan egiten diren normalizazio lanetara?
- Nafarroako Gobernuaren ustez, zer irizpide erabili daitezke Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak hizkuntza politikaren definizioan sartzeko?

Iruñean, 2001eko urriaren 18an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ekonomia globalizatuan finantza egonkortasuna, garapen ekonomikoa eta berdintasuna bultzatzeko helburua duten nazioarteko lankidetzako jarduketak egin ditzan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ekonomia globalizatuan finantza egonkortasuna, garapen ekonomikoa eta berdintasuna bultzatzeko helburua duten nazioarteko lankidetzako jarduketak egin ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztánnek, Biltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida dadin: ekonomia globalizatuan finantza-egonkortasuna, garapen ekonomikoa eta berdintasuna bultzatzeko helburua duten nazioarteko lankidetzako jarduketari buruzko mozioa.

Zioen azalpena

Aberastasuna eta egonkortasuna lortzeko nazioartean, herrialde guztiek behar dute ekonomia eta finantzen arloko politika egokia. Azken urteotan zenbait herrialdeko ekonomiak hondatu dituen finantza krisiak dira aipatutako aberastasun eta egonkortasunaren arrisku nagusiak: Europak 1992-93 urteetan izaniko krisiak, Mexikok 1994an izaniko "tequilazoa", hegoekialdeak 1997an pairatutako krisia, Errusiak 1998an, Brasilek 1999an, Turkiak 2000n...

Kalkuluen arabera, egunero 2 bilioi dolar baino gehiagok zirkulatzen dute nazioarteko merkatuetan. Transakzio horietatik %95 ez dira ondasun eta zerbitzuen trukeak baizik eta espekulaziozko tran-

sakzioak; zein epe motzean egiten diren ikusita, argi gelditzen da hori: inbertsio horien % 40k hiru egun baino gutxiago behar ditu joan-etorriko bidea egiteko, eta % 80 inguruk astebetean osatzen du.

Diru kopuru horiek eta Nazio Batuen Erakundeak garapenerako duen programaren diru kopuruak oso bestelakoak dira: munduan elikadura eta osasunaren arloko oinarrizko beharrak betetzeko programa bat 13 bilioi kostako litzateke urtean, denek hezkuntza aukera izateko programa bat 6 bilioi urtean.

Yalen ekonomia irakasle eta ekonomiako Nobel saridun James Tobinek, 1978 urtean, nazioarteko transakzioetan zerga bat erabiltzea proposatu zuen, % 0,1 et 0,5 bitartean egonen zena; helburua zen dibisa merkatuetako espekulazioa ez hain erakargarria egitea, baina epe luze-ko kapital mugimenduei edota kanbio-tasen doiketei kalterik eragin gabe. Tasa horrek inbertsio produktiboa eta hazkuntza suspertuko litzuzke, eta estatuak, moneta politika egitean, autonomoagoak bihurtuko. Zergaren bidez lorturiko dirua lankidetzako eta garapeneko proiektuetan erabiliko litzateke.

Estatu Batuetako eta Europako beste herrialde batzuetako parlamentuetan hasi dira eztabaidan, Kanadako Parlamentua horren alde agertu da, Europar Batasuneko erakundeek ere aztertuko dute gaia, eta herritar asko, gizarte mugimenduen bidez, ekimen ugari egiten ari dira gai honi buruz; horiek horrela, nahitaezkoa da gure parlamentuak zerbait esatea horrelako eztabaida bati buruz. Eztabaida ezin da herrialde bakar batean gelditu, baina, korapiloa askatzeko, nazio guztien bultzada eta borondate aktiboa da beharrezkoa.

Erabaki proposamena

1. Finantza antolamendu bat eraikitze aldera nazio guztiek egin beharreko ahaleginekin konprometitzen dela adierazten du Nafarroako Parlamentuak; antolamendu berri horrek berdintasuna, segurtasuna eta aurreikusgarritasuna izanen ditu oinarri, eta bere baitan hartuko ditu gizakiak berezkoak dituen aberastasun handiagoren nahia eta jakinduriaren emaitzen banaketa hobearen nahia.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du kezkatuta dagoela nazioarteko finantza-egon-

kartasan prozesuekin; hain zuzen ere, epe motzeko kapital mugimendu espekulatibo handi eta kontrolik gabeak jatorri izanik, herrialdeek libreki erabakitako egonkortasun eta jarraitasunarengan, mundu-ekonomiaren hazkuntzarengan eta nazioen arteko aberastasun-banaketarengan –gutxien garatutako nazioen artean izaten denarengan, bereziki– ondorio oso ere negatiboak dituzten prozesuekin

3. Nafarroako Parlamentuaren nahia da guk ere osatzen dugun ekonomia globalizatuak, zeinak oinarri hartzen baititu subjektu indibidualen askatasun ekonomikoa, merkataritza-trukeen liberalizazioa eta kapitalen mugimendu librea, aurrera egin dezala nahitaezko instituzionalizazio prozesuan, eta gizateriaren garapenerako ireki diren abantaila eta aukera nabarmenek ez dezatela ekarri herrialdeen aldeak, errenta eta ahalmenei dagokienez, lotsagarri handitzea, baizik eta lagun dezatela aberastasuna denentzako izaten eta munduko ezberdintasun izugarriak gutxitzen.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du uste osoa duela ezen gai horren aldeko nazioarteko hitzarmen zabal batek nazioarteari tresna indartsuak eman diezazkiokeela hainbat gauzetarako: egonkortasun eta aberastasun ekonomikoa errazteko, hondamendi naturalen ondoriozko beharrei aurre egiteko baliabideak emateko, eta

munduan, errenta eta ahalmenei dagokienez, herrialdeen aldeak murrizteko.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, nazioarteko finantza-arkitektura berri baten alde kementsu jardun dezan partaide den nazioarteko foroetan; antolatzeko modu berri horrek aipatu helburuak lortzeko bidea emanen du, eta, bereziki, bidea emanen du herrialde garatuaren protekzionismoaren ondoriozko arazoak konpontzeko, herrialde horiekin eginiko kanpo zorra negoziatzeko, eta garapenerako mekanismo eta laguntza-funtsak –nazionalak nahiz nazioartekoak– hobeak eta gehiago izateko.

6. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du beste herrialde eta gizarte talde batzuekin batu ditzan indarrak –Europakoekin, bereziki– Tobin tasa harmonizatu bat mundu osoan ezartzearen alde; tasa hori kapitalaren mugimendu espekulatiboen gainekoa izanen litzateke, eta oraindik aztertu gabeko motak eta kargatze erak izanen litzuzke. Halaber, Espainiako Gobernua premiatzen du, baita ere, Europar Batasuneko instituzioen barrenean jarrera hori bultzatzen.

Iruñean, 2001eko urriaren 8an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udalen erabakiak oztopa ez ditzan

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udalen erabakiak oztopa ez ditzan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Askotariko Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Milagros Rubiok, Parlamentuko Erregelamenduak jabelduren ondoriozko mozioei buruz xedatutakoaren babesean, aurreko urriaren 10ean Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduraren ondotik, mozio hau aurkeztu dut hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin: Orkoingo udalaren erabakiari eta Nafarroako Gobernuak gai horretan izaniko jardunbideari buruzko mozioa.

Zioen azalpena

Orkoingo Udalak, Orkoien izena euskalduna denez, aho batez erabaki zuen orain arteko grafia –Orcoyen– aldatzea; izenak, horrela, onartutako forma gramatikal eta grafia zuzena izanen zituen. Hori horrela, c letraren ordez k letra jarri zen, eta y

letraren ordeztu i letra. Udal ordezkariak aho batez onetsitako aldaketa txiki horrek Nafarroako Gobernuak udal erabaki horren aurka egitea eragin zuen.

Eztabaidagarria da grafia-aldaketa legediaren aurkakoa izatea, eta hala uste duenak gauza argia dela onartu beharako du Gobernuak berak are larrikiago egiten duela legediaren aurka orain gutxi onetsitako dekretuekin, euskara administrazio publikoetan arautzen dutenekin alegia. Baina Gobernuak hala interpretatuta ere, nahiz eta gure iritzia bestelakoa den, udalak egiten dituenak ukitzeko, horiek legeen aurkakoa izan eta ondorio larriak edo besteen eskubideak urratu beharko dituzte; kasu horietan soilik dirudi zentzuzkoa esku hartzea. Adibidez, Lan arriskuei aurrea hartzeko legea etengabe hausten da eta Gobernuak egunero esku hartu beharko luke; gauza bera gertatzen da Herri ondasunen legearekin, zeinaren urratzea hain baita ezezaguna Gobernuarentzat non lehendakariordeak berak aitortu baitzuen Osoko Bilkuran ez zuela inongo urratzeren berri. Oraingo kasu hau, grafia aldaketa batek (Orcoyen-Orkoien: c letraren ordeztu, k letra jarri, eta, y letraren ordeztu, i letra jartzea), ez du inongo oinarritzko eskubiderik urratzen, eta, gainera, horren ondorioak hain du eragin gutxi ezen gaztelaniaz nahiz euskaraz berdin ulertzen baita izen hori.

Horrenbestez, ondorio horietara helduta, ez dirudi justifikaziorik dutenik ez Gobernuak udal erabakietan eskua sartzeak –are gutxiago aho batez hartuak direlarik– ezta Nafarroako Gobernuaren arreta zorrotzak ere, kontuan izan behar baitugu esku hartu behar lukeen gai askoz ere garrantzitsuagoetan ez duela horren zorrotz jokatzeko.

Horiek guztiak horrela, hona erabaki proposamenak:

1) Nafarroako Gobernuak premiatzen da udalen erabakiak ez ditzan uki hurrengo baldintzak betetzen badituzte: ordezkariaren gehiengoaz edo aho batez hartutako erabakiak izan, ordezkariaren gehienak edo denak erabakiaren alde izan, inoren oinarritzko eskubideak ez urratu eta herritarrentzako inongo ondorio larri edo bidagabekorik ez ekarri.

2) Nafarroako Gobernuak premiatzen da Orkoien Udalaren erabakia, grafia aldatu eta Orkoien beharrez Orkoien izena izateko erabakia alegia, errespetatu dezan.

Iruñean, 2001eko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gorteen dei egiten diete herritarrei bakearen alde eta terrorismoaren eta gerraren kontra erantzun deza- **ten**

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gorteen dei egiten diete herritarrei bakearen alde eta terrorismoaren eta gerraren kontra erantzun deza-

ten". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitaratu dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Estatu Batuek, zenbait gobernuren babesarekin, Espainiako Alderdi Popularrarena barne, Afganistanen aurkako ekintza militarri ekin dio. Argitu dira zalantzak eta gerta zitekeen aukerarik makurrena gertatzen ari da. Estatu Batuek eta haren aliatuek, ustez terrorismoaren aurka egiteko, indar militarra erabiltzea erabaki dute.

Ezker Batuaren iritziz hori onartezina da. Lehenengo eta behin ez da egia ekintza honek nazioarteko legeen babesa duenik; Nazio Batuek ez dute inongo baimen espresurik eman horrelako ekintza militarra egiteko. Nazioarteko zuzenbideak Nazio Batuei aitortzen die indarraren monopolioa, eta gertatutakoa ez da hori izan.

Ez da egia justizia egiten ari denik. Ez da abian jarri zuzenbidean oinarritutako nazioarteko erantzuna emateko aukera eman zezakeen inongo neurririk, prozedura berme gutxienekoak izan zituena eta nazioarteak eskuera dituen baliabide polizial eta diplomatikoetan oinarritua. Justizia oinarri lukeen erantzunak indartu egiten lituzke gure demokraziak.

Hala ere, ekintza militar horren aurretik herritarren askatasun eta eskubideak murriztu eta mugatzeko saioak izan dira. Beste behin, egia ere gerraren biktima gertatu da.

Ekintza horren ondorioz, irailaren 11ko tragediaren inongo erantzukizunik ez duten biktima zibilak izanen dira nahitaez, eta horien eskakizunik garbiena justizia da eta ez mendekua. Gogorarazi behar da, beste behin ere, hala Osama Bin Laden nola erregimen talibana Estatu Batuen nazioarteko estrategiaren seme politikoak direla.

PPren gobernua, aldi honetan, Estatu Batuek bultzatutako estrategia erabat oldarkor horren laguntzaile izan da. Aznar jaunak gure parte-hartzea konprometitu du; horretarako ez du Gorte Nagusien baimena eskatu, eta, horrela, berriro ere, hautsi egin ditu Espainia NATO n sartzeari buruzko erreferendumean ezarritako baldintzak.

Horregatik, hau adierazten dugu:

1. Nafarroako Gorteek dei egiten diete herritarrei, erakunde bakezaleei eta egoera honek kezkatzen dituen guztiei, herri-erantzun bat antola dezaten bakearen alde, eta terrorismoaren eta gerraren aurka.

2. Nafarroako Gorte Nagusiak adierazten dute gure mundua seguruagoa eta gure etorkizuna argiagoa egiten duen erantzunak behar dituen oinarriak hauek direla: bakea, nazioarteko zuzenbidea, ekonomia- eta gizarte-ordena berria eta terrorean aurkako baliabide juridiko, ekonomiko eta polizialak.

Iruñean, 2001eko urriaren 17an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Nafarroako liburutegi publikoen eredua” izeneko proiektua bultza dezan

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Nafarroako liburutegi publikoen eredua” izeneko proiektua bultza dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Askotariko Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Milagros Rubiok, mozio hau Osoko Bilkuran tramitatzea eskatzen dut:

Zioen azalpena:

UNESCOk 1994an eginiko manifestuan, liburutegi publikoa definitzen du esanez informazioa eta kultura eskueran izateko oinarritzko zerbitzu dela, eta hurrengo helburuak ezartzen dizkio:

- 1.- Haurrengan, txiki-txikitatik, irakurtzeko ohitura sortu eta sendotzea.
- 2.- Hezkuntzaren laguntzaile izatea, hala banaka ematen denarena nola autodidaktena, bai eta maila guztietako hezkuntza formalarena ere.
- 3.- Norberaren garapen kreatiborako aukerak ematea.
- 4.- Haur eta gazteen imajinazioa eta sormena bizkorraztea.
- 5.- Ondare kulturalaren ezaguera eta arteen nahiz zientziaren lorpen eta berrikuntzen balioespena sustatzea.
- 6.- Artearen emaitza guztien kultur adierazpenak eskueran jartzea.
- 7.- Kulturen arteko harremana sustatu eta kultur aniztasuna bultzatzea.
- 8.- Ahozko tradizioaren lagungarri izatea.
- 9.- Herritarrei erkidegoaren informazio mota guztiak eskueran izatea bermatzea.
- 10.- Tokiko enpresa, elkarte eta taldeei informazio zerbitzu egokiak ematea.
- 11.- Informazioaren erabileraren aurrerapena eta informazioa baliabide informatikoen bidez erabil dadila ahalbidetzea.
- 12.- Adin guztietako pertsonentzako alfabetatze programa eta jardueri laguntza eman eta horietan parte hartzea, eta, behar izanez gero, horiek abiaraztea.

Liburutegi publiko modernoak honako ezaugarriok behar lituzke:

- Malgua: zerbitzatzen duen erkidegoaren beharretara egokitzen den liburutegia.
- Demokratikoa: liburutegi publikoak erkidego guztiarentzat baliagarri eta erakargarriak diren zerbitzuak eskaini behar ditu: langile, emakume, haur edo adinduentzako zerbitzuak; eta bereziki hartu behar ditu kontuan gutxiengoaren informazio-, gizarte- eta kultura-beharrak, hau da, etorkin, lan-

gabetu, gutxiengo etniko eta linguistikoak, besteak beste.

- Informatiboa: informazioa liburutegi publikoak eskainitako funtsezko zerbitzu bat izanen da; liburutegia erkidegoaren informazio gune oinarritzko bihurtuko da eta erkidegoari berari buruzko informazio gune oinarritzko; informazio horrek, erabilgarria izan dadin, zenbait ezaugarri beharko ditu: eskueran egon beharko du, azkarra beharko du izan, eguneratua, berezko kalitadeduna, eta itxura erabilgarri eta erakargarria.

- Irekia: liburutegi informatiboak ez du esan nahi liburutegiak dituen baliabide informatiboekin soilik erantzun beharko dienik gai guztiei, baizik eta, beharrezkoa denean, informazioa kanpoan bilatuko duela; orobat, liburutegiak beste liburutegi edo erakunde batzuek jatorri dituzten eskakizunei erantzunen die, zerbitzatzen duen erkidegoan egon ala ez egon horiek.

- Automatizatua: horretarako nahitaezkoa izanen da liburutegiak azpiegitura informatiko minimo bat izatea, funtsen kudeaketa bermatzeko eta bai barneko bai kanpoko informazioa eskueran izan ahal izateko.

- Multimedia: liburuak eta aldizkariak ez dira jada informazioaren euskarri bakarrak; informazioa tratatu, kontrolatu eta gordetzeko teknologia-aren etengabeko garapenak eta balizko erabiltzaileak produktu horiek –ikus-entzunezko eta elektronikoak– nahiago izateak liburutegia behartzen dute balizko erabiltzaile horiek informazioa jasotzeko gustukoak dituzten bideetara egokitzea eta informazioa euskarri guztietan ematera.

- Erkidegoan txertatua: liburutegia informazioaren eta kulturaren erreferentzia izanen da erkidegoarentzako; jarduerak sorrarazi behar ditu, eta horietara ekarri erkidegoko beste erakunde batzuk. Liburutegiak, bestalde, egoitza bat izateaz gain, erkidegoan antolatzen diren ekintzetan agertu beharko du; herritarrak non diren, han izan beharko du, horiengandik gertu: azoketan, jaietan, zahar etxeetan, ospitaleetan, etab.

- Errentagarria: baliabideak betiere mugatuak direnez, kontuz eta tentuz erabili behar dira, ahalik eta etekin handiena ateratzeko erkidegoarentzako; eman daitezkeen zerbitzu guztien artean hautatu egin behar da: tokiko beharrei, esan nahi baita herritar guztiei, hobekien egokitzen zaizkien zerbitzuak aukeratu behar dira.

- Hezitzailea: informazio lortzeko beregainak diren erabiltzaileak sortu behar ditu, tresna informatikoen erabileran eta liburutegiak eskaintzen dituen baliabide guztietan trebatuz.

Nafarroan, liburutegi publikoak duen egoera larria da, argi eta garbi. Beste zerbitzu publiko batzuek bezala, eraikin bat behar du dokumentu-funtsa hartzeko eta zerbitzuak emateko, gero eta gehiago eta gero eta anitzagoak baitira. Horri dagokionez, inbertsioek gora egin dute azken urteotan, nahiz eta ez diren nahikoa, eta zerbitzuak hobera egin du.

Hala ere, beste gai batzuetan, aurrekontuetan eginiko ahalegina ez da, inondik ere, behar adinako. 2001ean dokumentu-funtsak mantentzeko 90 milioi jarri ziren eta horrek 189 pezeta egiten du biztanleko. Nafarroako liburutegietan 1.269.488 dokumentu daude; horietatik 16.063 besterik ez dira ikusentzunezko materialak edo material elektronikoak, eta liburutegi batzuetan bakarrik daude eskuragarri; beraz, lehenbailehen areagotu eta dibertsifikatu behar dira liburuak ez diren euskarriak.

Azpitarratzekoa da azken hamar urteotan liburutegi gehienetan egin den ahalegina, funtzionarioen ahalegina bereziki, zerbitzuak ezagutzera emateko eta, ekintza eta jarduera bidez, liburuak nahiz irakurzaletasuna ezagutzera emateko. Iazko urtea bakarrik kontuan hartuta, 975 ekintza egin ziren, eta horietarako guztietarako 6 milioi pezeta-ko kontusail irragarria besterik ez dago.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak 1997an ekin zion Nafarroako liburutegi publikoak informatizatzeari. Batetik, liburutegien kudeaketarako sistema integratua (ABSYS) erosi zuen; bestetik, liburutegietan gutxinaka-gutxinaka ekipo informatikoak jartzeari ekin zion, horrela programa horren bidez kudeaketaren informatizazioa ahalbidetzeko eta euskarri optikoen bidez informazio sareetan dagoen informazioa –gero eta aberatsagoa eta interesgarriagoa– eskueran jartzeko. Liburutegien modernizazioaren nahiz informazioaren gizartearen aldeko apustu horrek ez du laguntza handirik izan aurrekontu-eta antolamendu-baliabideei dagokienez. Bost urtetan, 127 milioi pezeta inbertitu dira, eta sei hilabetetan, aldiz, 150 milioi pezeta banatu ziren Etxe@ programarekin. Egun, 3 liburutegi besterik

ez dira aritzen modu erabat mekanizatuan, eta, hurrengo hilabeteetan, beste lauk amaituko dute prozesu hori.

Aurreko legegintzaldian, Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak –zenbait adituren eta inplikaturako zenbait sektoreen laguntza izan zuen– helburu nagusia hau zela zioen: “liburutegi sare badaezpadako bat dena elkargune soziokulturalen sare sendo bat eta herritarrentzako informazio puntuen sare sendo bat bihurtzea.” Eta honela jarraitzen zuen: “liburutegi publikoek behar dute izan herritarrek informazioa eskuratzeko bide nagusia, zein dela ere argitaratze-modua. Sistemaren xedea da herritar guztiengana heltzea, eta oinarrizko zerbitzu publiko bihurtzea. Denbora luzez iraun duen liburutegi kontzeptua gainditzea da ereduaren nahia, hots, ikasteko gela edo maileguan uzteko liburuak biltegi izateari uztea eta edozein motatako funtsak eskuratzeko bide bihurtzea, informazio telematikoa eskuratzeko bide, teknologia berrien erreferente, gizartearen informazio gune, kultura eragile, etab.”

Proiektua oso interesgarria zen, baina gelditu egin da legegintzaldi honetan; berriro hartu behar-ko litzateke liburutegiei buruzko foru lege proiektu bat egin ahal izateko, gai horri buruzko legedi propiorik ez dugun erkidego bakaretakoa baikara.

Horiek horrela, hona Osoko Bilkuran eztabai-datu eta bozkatzeko erabaki proposamenak:

1.- Nafarroako Gobernua premiatzen dugu “Nafarroako liburutegi publikoen eredu” izeneko proiektua bultzatzean, eta, horretarako, aurrekusi ziren inbertsioak handitzeko –3.000 milioi inguru izan ziren– urte anitzeko plan bat egin beharko da, 2002ko aurrekontu orokorretan ere jasoko baita.

2.- Nafarroako Gobernua premiatzen dugu, aipatu proiektua oinarri hartuta, Nafarroako liburutegi publikoei buruzko foru lege bat egin eta Parlamentura igor dezan.

Iruñean, 2001eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da teresatarren ikastetxea zen eraikineko obrak ez egitera Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta Nafarroako Kontseiluaren iritzia jakin arte

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da teresatarren ikastetxea zen eraikineko obrak ez egitera Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta Nafarroako Kontseiluaren iritzia jakin arte".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztánnek, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, mozioa aurkeztu dut lehenbailehen tramitatu eta Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean eztabaida dadin. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da teresatarren ikastetxea zen eraikineko obrak ez egitera Nafarroako Eskola Kontseiluak eta Nafarroako Kontseiluak lokal horren baldintzei buruz duten iritzia jakin arte.

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ustez, bada zalantzarik, oraindik ere, Iruñeko Alde Zaharreko San Frantzisko ikastetxe publikoa hartzeko teresatarren ikastetxea izanikoan obrak hastearen egokitasunari buruz; hona zalantza horien oinarria, mozioaren justifikagarri.

Lehena.

2000ko otsailaren 17an, Iruñeko Udalak lankidetzat hitzarmen bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuarekin Nafarroako Liburutegi Nagusia orain haur eta lehen hezkuntzako San Frantzisko ikastetxea dagoen orubean egiteko. Hitzarmen

horren arabera, ikastetxea Ezpeleta Jauregia izenekora eramanen zen, teresatarren ikastetxea izandakora. Hitzarmena sinatu zen, baina espresuki ohartarazi zen San Frantzisko ikastetxearentzako leku berri horrek arauak bete behar zituela.

Teresatarren ikastetxea egokitzeko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aurkeztutako proiektuak zalantzak sorrarazi zituen; ez zegoen argi hezkuntza arloko arauak eta suteen aurkako segurtasun neurriei buruzko arauak betetzen ote zituen. Ondorioz, Nafarroako Parlamentuak, alderdi horiek argitzeko, txostena eskatu zion Nafarroako Kontseiluari. Iruñeko Udalak, berriz, proiektu hori gauzatzeko obra lizentzia eten egin zuen Nafarroako Kontseiluak irizpena eman artean.

Ekainaren 28an Nafarroako Kontseiluak jakitera eman zuenez, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren proiektua ontzat eman zuen. Hala ere, irizpena irakurrita ikus daiteke zer hartu duten oinarri; Nafarroako Kontseiluak, hasierako gogoe-tetan dioenez, bigarrenean hain zuzen, azterlanak hau aztertzen du: "Teresatarrak-Ezpeleta Jauregia eraikinean San Frantzisko ikastetxeko ikasle guztiak hartzeko aukera, egungo matrikula"; ondotik, "San Frantzisko ikastetxe publikoko matrikulak 1999-2000 ikasturtean" aipatzen ditu, eta esaten du "140 ikasle zirela 11 eskola-unitatetan."

Horri dagokionez, gogorarazi behar dugu Hezkuntza Departamentuarekin sinatutako lankidetzat hitzarmena udalaren Osoko Bilkurara heldu aurretik, Hirigintza Alorrak atzera bota zuela Hezkuntza Departamentuko Mantentze Ataleko buruak otsailaren 3an eginiko hasierako txostena, uste izan baitzuen ez zela egokia haur eta lehen hezkuntzako beharrei erantzuteko. Mantenimendu Ataleko buruak idazki horretan zioenez, teresatarren ikastetxeak har zitzakeen San Frantzisko ikastetxeak egun dituen ikasleak. Hezkuntza zuzendari nagusiak idazki bat igorri zuen udaletxera non esaten baitzen teresatarren ikastetxean "bideragarria zela 3 lerroko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe bat", guztira "27 unitate izanen zituena"; horren ondorioz, hitzarmena sinatzea onartu zen. 27 unitate 3 lerrotarako, hezkuntza antolamenduari dagokionez, 3 lerro oso dira.

Hezkuntza eta Kultura Departamentua eta Iruñeko Udalaren arteko idatzizko konpromiso hori, prozesu honen guztiaren azpian eta hasieran bai-

tago, ez da agertzen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kontseiluari helarazi zion agiri ugarien artean. Horrenbestez, erakunde horrek ezin izan du kontuan hartu txostena egiterakoan, eta hitzarmenaren norainokoa interpretatzeko funtsezko elementua da izan. Hori hala da, are gehiago eztabaida gaia denean ea aplikagarria den 1004 Errege Dekretuaren xedapen gehigarria, ikastetxe osatu gabeak sortzeko aukera ematen baitu.

Bigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseiluari aztertzeko eskatu zion hirugarren puntua zen suteen aurkako babes baldintzei buruzko estatuko arauen betetze-maila (NBE-CPI/96). Nafarroako Kontseiluak dio, horri buruz, "ontzat eman behar duela igorritako agiriei diotena, adituek sinatua baitago; horien arabera, ez dago arau-hausterik gai horri dagokionez." Nafarroako Kontseiluak irizpena egiteko aztertu dituen agiriei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu garri horri buruzko txosten tekniko bakarrak 12 a puntukoak direla; hau da: "Iruñeko Udaleko teknikariak 2001eko apirilaren 18 eta 27an eginiko txostenak, suteen aurkako babes neurriei buruzkoak eta Óscar Nagore Soravilla jaunak aurkeztutako alegazio-idazkiari buruzkoa; bi txostenak ontzat eman zituen SCISeko buruak"

Nahiz eta txosten horiek esan teresatarren ikastetxea egokitzeko proiektuak betetzen dituela suteen aurkako arauak, San Frantzisko ikastetxe-ko gurasoen elkarteak, uztailean, alkatearentzako idazki bat aurkeztu zuen, udaleko talde guztiei helarazi ziezaien, non esaten baitzen arautegi horretako artikulua bati buruzko erreferentzia, elkartearen ustez, okerra zela. Gurasoek ohartarazitako hutsa egia izanez gero, txostenaren ondorioak bestelakoa izan behar zuten; arauen betetzetzat harturikoa, horrela, arau-hauste biko-

tza litzateke. Ikastetxea erabiltzen duten pertsonen segurtasunari buruz ari gara, eta gelen eta irteeren arteko tarteari buruz; hori kontuan hartuta, akats bat besterik ez litzatekeena arduragabekeria larria bihurtuko litzateke, eta oso-osorik udalaren eskumenekoa gaia da hori.

Hirugarrena.

Gai horri buruzko hirugarren gai bat da Nafarroako Eskola Kontseiluak orain arte ez eman izana iritzirik San Frantzisko ikastetxea dagoenetik Kale Nagusira, teresatarren ikastetxera, eramateari buruz; zer iritzi duen jakitea komenigarria dirudi Nafarroako Gobernuak behin betiko erabakia hartu aurretik.

Arrazoi horiek guztiak oinarri, hona erabaki proposamena, Nafarroako Parlamentuak onetsi dezan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua hurrengoetara premiatzen du:

1. Nafarroako Kontseiluaren txosten berria ezagutu arte eta Nafarroako Eskola Kontseiluak gai horri buruz duen iritzia ezagutu arte, ez ditzala teresatarren ikastetxea izandakoan obrak egin Iruñeko Udalak emaniko lizentzia erabiltza.

2. San Frantzisko ikastetxe publikoa Ezpeleta Jauregian jartzea egokia den berraztertze prozesu bat ireki dezala, bai eta aztertu Hezkuntza Departamentuak sinatutako hitzarmena amaiaraz daitekeen ere, sinatzerakoan ezarri ziren baldintzak ez betetzeagatik.

3. Nafarroako Liburutegi Nagusia Alde Zaharreko San Frantzisko ikastetxea ez den beste erai-kin batean ezartzea azter dezala.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Bardeako tiro poligonoaren eta hura gerrarako trebatzeko eremu gisa erabiltzearen aurka dagoela adierazten du

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak 2001eko urriaren 17an idazki bat aurkeztu zuen ondoko mozioa erretiratzea eskatuz: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Bardeako tiro poligonoaren eta hura gerrarako trebatzeko eremu gisa erabiltzearen aurka dagoela adierazten du". Aipatu idakia ikusita, hona ERA-BAKIA:

1. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aipatutako mozioa erretiratu duela jakitun dagoela adieraztea. Mozio hori 2001eko urriaren 5eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak ondoko galdera egin du: "Adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruzko galdera".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parla-

mentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Bilzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dadin:

Foru parlamentari honek egindako galdera bat erantzunez, urriaren 8an erregistroan sartu zen erantzun partziala. Hori dela eta, adimen gaixoentzako programek 1999-2000-2001 urteetan izan duten aurrekontu-betetzeari buruz berriro galde-tzen dut, Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate eta Osasun Kontseilaritzek erantzun ditzaten egun horretan egindako galderak.

Iruñean, 2001eko urriaren 11n

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

(Oharra: aipatu galdera 2001eko ekainaren 20ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

Euskaltzaindiarekiko akordioa izenpetu ez izanaren arrazoiei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Euskaltzaindiarekiko akordioa izenpetu ez izanaren arrazoiei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin diot Nafarroako Gobernuko Hezkun-

tza eta Kultura kontseilariari idatziz erantzun diezadan:

2001eko uztailaren 18an galdera egin nion Nafarroako Gobernuari "Euskaltzaindiarekin hitzarmena" kontusailari buruz. Batetik, kontusailaren betetze-egoerari buruzko informazioa eskatu nuen, eta, bestetik, sinaturiko hitzarmenaren kopia.

Diputazioaren erantzuna irailaren 24an heldu zen Nafarroako Parlamentura, eta esan zaidan gauza bakarra da hitzarmena ez dagoela sinatuta.

Hauxe jakin nahi dut:

1.- Zergatik ez den sinatu hitzarmen hori.

2.- Zer baldintza jartzen dituen Gobernuak eta zer baldintza Euskaltzaindiak hitzarmen hori sinatu ahal izateko.

Iruñean, 2001eko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko "Irakaskuntza ertain eta goi mailako ikasketetarako beka eta laguntzak" kontusailaren superabitari buruzko galdera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurrekontuko "Irakaskuntza ertain eta goi mailako ikasketetarako beka eta laguntzak" kontusailaren superabitari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Hez-

kuntza Departamentuak idatziz erantzun diezazkion.

Aurrekontu aldaketa baten bidez, 100 milioi pezeta kargatu ziren "Irakaskuntza ertain eta goi ikasketetarako beka eta laguntzak" izeneko lerroan eta BATASUNA talde parlamentarioak Nafarroako Gobernuari horri buruzko informazioa eskatu zion. Gobernuak, erantzunean, aurrekontu aldaketa justifikatzeko, Cardenal Ilundain ikastetxe publikoa eraldatzeko beharra aipatu zuen, eta hori, dirudienez, ez zegoen aurreikusita 2001ekoa aurrekontuetan.

Gastu hori kontusail horren kargu jartzeko justifikazioa da lerro horrek, nonbait, superabita izan duela helburu duen laguntza-deialdia ebatzitakoa. Datu hori bitxia bada behintzat; izan ere, dirukopuru horrek lerro horren % 12 baino gehiago egiten du. Horrek erakusten duena da departamentuaren aurreikuspen falta ikastetxe publikoe-

tarako inbertsioei dagokienez, eta departamentuaren askatasuna inbertsio horiek non egin hautatzean; kontuan har dezagun badirela beste ikastetxe batzuk –Ermitaberri edo Ave María, adibidez– aspaldidanik ari direnak azpiegitura gehiago jaritzeko eskatzen eta ezer ere ez dute lortu orain arte.

Harrigarria da, halaber, dirua hartzen den kontusailak superabita izatea, beketarako baita: eskolatze, egoitza izateko, garraiorako edo jantokirako beketarako. Hori horrela, talde parlamentario honek hurrengoak jakin nahi ditu:

1.- Beka deialdia ebatzi eta zenbateko superabita du 41002-41620-4800-42510 kontusailak ("Irakaskuntza ertain eta goi ikasketetarako beka

eta laguntzak"), kontuan hartuta hasieran aurreikusitako zena eta aldaketak alde batera utzita?

2.- Zenbat beka-eskari eta zertarako aurkeztu dira lerro horretako beka deialdian?

3.- Horietako zenbat onartu dira? Zenbat eta zertarako ziren zehaztea nahi dugu.

4.- Horietako zenbat baztertu dira? Zenbat eta zertarako ziren zehaztea nahi dugu.

5.- Zeintzuk izan dira, nagusiki, horiek baztertzeko arrazoiak?

Iruñean, 2001eko urriaren 17an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

MER hondakinen manipulazioak, Tratamientos MER, S.A. enpresak egindakoak, izan duen kostuari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak MER hondakinen manipulazioak, Tratamientos MER, S.A. enpresak egindakoak, izan duen kostuari buruz egindako galderaren biderapena oneste erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrenak, Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin diot Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariari idatziz erantzun diezadan:

– Tratamientos MER SA enpresa egiten ari den hondakinen manipulazioak zer kostu izan du orain arte?

– Zer baldintza ekonomiko daude Tratamientos MER, SA eta Nafarroako Gobernuaren artean gaur egun, eta zehazkiago urri hasieratik hona, tratamendu sistema berria dela eta?

– Zergatik zure departamentuak ez zuen baimendu orduan, eta orain aldiz bai, hondakin freskoak gure erkidegotik kanpo eramatea?

Iruñean, 2001eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Azken bost urteotan atxilotu dituzten paperik gabeko etorkinei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak azken bost urteotan atxilotu dituzten paperik gabeko etorkinei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernándezek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, etorkinei buruzko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Zenbat “paperik gabeko” etorkin atxilotu dituzte Nafarroan azken bost urteotan, eta horietako zenbati ireki zaizkie kanporatze espedienteak edo beren jatorrizko herrietara itzultzeko espedienteak?

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

Ezgaituentzako laguntzei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak ezgaituentzako laguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Cas-

tillejo Hernándezek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, Nafarroako Foru Komunitatean ezgaituentzako ematen diren laguntzei buruzko galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Zenbat egiten dute ezgaituen enplegua bultzatzeko dirulaguntzek eta bestelako laguntzek, zer erakunderi eman zaizkio eta zer nolako emaitzak lortu dira azken hamar urteotan pertsona horien laneratzeari dagokionez?

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

Telelaguntza zerbitzuaren erabiltzailei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak telelaguntza zerbitzuaren erabiltzailei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernándezek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, telelaguntza zerbitzuari buruzko galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaien.

Zenbat pertsonak erabiltzen du telelaguntza zerbitzua eta zein izan da azken bost urteotan zerbitzuak izaniko bilakaera?

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

Zaraitzun ibarreko zenbait herriren izena euskaraz adierazten zuten erro- tuluak kendu izanari buruzko galdera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Zaraitzun ibarreko zenbait herriren izena euskaraz adierazten zuten erro-
tuluak kendu izanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, ahoz erantzuna izan dadin Osoko Bilkuran.

Zaraitzun zenbait herritako euskarazko izenak adierazten zituzten erro-
tuluak kendu izanari buruzko galdera egin zion Batasuna Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuari (Eledunen Batzarrak galdera tramita zedila 2001eko ekaina-

ren 25ean onetsi zuen). Gobernuak idatzizko erantzunik ez du eman eta Erregelamenduan ezarritakoa berriro ere hautsi duenez, hurrengo galderak egin dizkio ahoz erantzun diezazkion:

Joan den asteazkenean, ekainak 20, Herrilan Departamentuko Bide Zerbitzuko patruila batek, Zaraitzu Ibarreko zenbait puntutan, ibar horretako herri batzuen izena euskaraz adierazten zuten erro-
tuluak kendu zituen.

Ekintza hori egin zen udal eta kontzejuetako alkate-udalburuek haren berri izan gabe eta haiek horretarako baimenik eman gabe. Hain zuzen ere, alkate-udalburu horiek jarriak ziren erro-
tuluak, euren herrien gaztelaniazko izenarekin batera euskarazko izena ere ager zedin.

Horrelako ekintza ikusirik, honakoak dira gure galderak:

1.- Nork eman du seinale horiek kentzeko agindua?

2.- Seinale horiek –zeinak Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak ez baitziren– kentzeko agindua zein arauditan oinarritu da?

3.- Zergatik ez zitzaien tokiko udal agintariei jakinarazi errotulu horiek kenduko zirela?

4.- Nafarroako Gobernuak herri horien izena euskaraz adierazten duten seinaleak kentzeko asmoa baldin badauka, zein ekintza egingen ditu Departamentu horrek Zaraitzuko bizilagunen gehiengoaren borondatea –zeina euren udal-ordezkariek euren herrien izenak euskaraz adie-

razteko harturiko erabakian islaturik baitago–errespetatuko dela bermatzeko?

5.- Nafarroako Gobernuak ibar horretako bizilagunei gaztelania hutsezko seinalizazioa haien gogoz kontra inposatzeko asmorik al dauka?

Iruñean, 2001eko urriaren 17an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Zaraitzun ibarreko zenbait herriren izena euskaraz adierazten zuten errotuluak kendu izanari buruzko galdera

ERRETIRATUTAKO GALDERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste

1. Batasuna Parlamentuko Taldeak Zaraitzun ibarreko zenbait herriren izena euskaraz adierazten zuten errotuluak kendu izanari buruzko galdera erretiratu duela jakitun dagoela adieraztea. Gal-

dera hori 2001eko uztailaren 2ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Ikus-entzuzkoen Kontseiluko kideak hautatzeko arauak

IZANGAIK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste

1. Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Ikus-entzuzkoen Kontseiluko kideak hautatzeko 4 eta 6. arauak aldatzea. Aldaketa horren ondorioz, Parlamentuko taldeek izangaiak aurkezteko epea luzatzen da 2001eko aza-

roaren 12ko hamabiak arte eta izangaiekin egin beharreko bilera azaroaren 15ean egingen dela adierazten da.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 ».</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 ».</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---